

# t tipi t tapa

2005eko azaroaren 3a • XXV. urtea

409



## Turismoa eskaintza hobetzeko laguntza

04

Nafarroako mendialdeko turismo eskaintza hobetzeko dirulaguntza bideratu du Nafarroako Gobernuak. Eskualdean 10 proiektu egingen dira.



## Nafarroako finala Donato gabe

29

Azaroaren 18an Donezteben jokatuko den Nafarroako aizkolari txapelketa nagusiaren finalean ez da gaur egungo txapelduna, Donato Larretxea izanen.



03

ABELORE ELKARTEA

## Baserriko lana turistei eskainia



# Lur

d i s k o t e k a



@Lurtaberna

www.lurelizondo.com

azaroak **04**

## LUR D JOTAK

00:45

azaroak **05**

# DISKOTEKA

8€

+ kontsumizioa

01:00

ondoren DJ'ak

HIP-HOP

00:45

azaroak **11**

## L.UR. (Leyenda Urbana)

azaroak **12**

# SEMAFORO

BESTA



8€

+ kontsumizioa

01:00

ondoren DJ'ak

HARDCORE

00:45

azaroak **18**

## STRAWBERRY HARDCORE

azaroak **19**

# LA PULQUERIA

12€

+ kontsumizioa

01:00

gratuitik

## DATUAK...

• Baserriko lanak egitan lotuak dauden Nafarroako landetxoak elkartu dira Abelore elkarteon.

• Nafarroan 500 landetxe baino gehiago daude, baina 15 bertzerik ez Abeloren. Eskualdean Anizko Jauregia, Azpilkuetako Petisansenea, Berako Alkeberrea eta Yikaurri, Elizondoko Urruska eta Erratzuko Kastorea sartu dira momentuz elkarteon.

• Anizko Jauregiako Aitor Azkarate Abeloreko lehendakari ordea da.



Aitor AZKARATE *Abelore elkarteko lehendakariordea*

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

## «Baserriko lanak eskaintzen dizkiegu turistei, hasierako landetxeek bezala»

Aitor AROTZENA

Nafarroan hainbete landetxe dau. Horien barnean, zer bereizgarri duzue Abelore elkarteon bidutakoek?

Abelore elkarteak duela bi urte sortu zen. Nafarroako landetxeen barnean ezberdindu egin behar zela ikusi genuen. Landetxeak nekazaritzarekin eta abelzaintzarekin lotuak sortu ziren hasieran, baina hori galtzen joan da. Iparraldera bidalak egin genituen, han nola antolatu diren ikusi genuen eta hemen ere elkarteak sortzea erabaki genuen. Abeloren sartzeko oinarritzeko gauza hori da: nekazaritzarekin edo abelzaintzarekin lotua egon behar duzu. Bi oilo izateagatik ez zara Abeloren sartzeko ahal, zerbait gehiago eskaini behar duzu. Oinarri batzuk jarri genituen eta baserriko lanak ikusteaz gain, turistek parte hartzeko aukera ere ematen zaie gure etxetan.

**Beraz, turista batek izan dezake behiak jeitzeko edo ardiak bazkatzeko aukera zuen etxetan...**

Beraie ere erakutsi nahi zaie lehenago nola bizitzen zen baserrietan.

«Landetxeen turismoaren gauza da orai eta ez nekazaritzaren gauza. Guk biek batzea nahi dugu eta bien artean, etsetik eta nekazaritzatik errentagarritasuna ateratzea»

Orai gauzak aldatu dira, baina lan batzuk berdin segitzen dute. Hiri bateko familiarri erakusten diogu hemen go bizimodua. Hori da bertze etxetatik ezberdintzeko modua.

**Abeloreko baserri batera doan turistak, badaki nora doan edo uste-kabean hartzen du honefako eskaintza?**

Hori da lanik zailena, jendea erakustea zer eskaintzen dugun. Elkarre berria da eta ez dugu halako publizitaterik egin. Feria batzuetan parte hartu dugu eta jendeak galde egingen du, eskoletatik ere galdetzen dute... Batzuk uste dute granja-eskola famatu horietakoak garela, baina ez da hori. Etortzen diren turisten artean bada denetarik, baina oportetean daudenez, ongi egoten dira. Batzuk

lehenbiziko egunean kuadrara gona eta ez dira gehiago agertzen. Batzuk ez dira inora agertzen, atsedean hartzen etorri dira eta berdin zaie zer eskaintzen dugun. Haur batzuk, aldez, kuadratik ezin ateraz ibiltzen gara. Aunitzetan behiak jeitzea baino lan gehiago izaten da haur kaso egitea. Bakoitzak bere plana du, baina gure eskaintza hor dago.

**Inguruko baserri gehiago ikusten duzu Abeloren sartzeko moduan?**

Seguru badirela guk eskatzen ditugun baldintzak betetzen dituzten landetxeak. Hasmentako etxe gehienak nekazaritzarekin lotuak zeuden eta oraino batzuk segitzen dute landetxe izaten. Bertze gauza da nekazaritza beheiti doaiela eta zaila dela gaur egun etxea izatea eta nekazaritzatik bizitzea.

**Beraz, hasierako landetxeen eskaintza da Abeloren eskaintza...**

Orai etxe rurala turismoaren gauza bat da eta ez nekazaritzaren gauza bat. Guk biek batzea nahi dugu eta bien artean, etsetik eta nekazaritzatik errentagarritasuna ateratzea. Bertzenaz ez dago bizitzeko aukerarik.



ARGAZIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Agoitzen urriaren 18an egin zen sinadura ekitaldian eskualdeko alkate eta udal ordezkariak izan ziren.

MENDIALDEKO ESKAINTZAREN KALITATEA HOBETU NAHI DA

# Turismo azpiegiturak egiteko milioi erdi euroko dirulaguntza hartu dute Udalek

**Nafarroako mendialdeko azpiegitura turistika proiektuetarako 1,4 milioi euroko dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak. Proiektuak 2005-2007 urteen artean gauzatuko dira eta Cederna-Garalur elkarteak kudeatzen duen "Nafarroako Mendialdea Helburuaren Kalitatea" programaren barnean sartuak daude. Nafarroako Gobernuak inbertsioaren %64,27 diruz laguntzen du eta gainerako %35,7a Udalek ordainduko dute.**

**Aitor AROTZENA**

Urriaren 18an Agoitzen sinatu zuten hitzarmena Juan Ramon Corpas Nafarroako Gobernuako Kultura eta Turismo kontseilariak eta mendialdeko udal ordezkariak. Guzira, 31 herri ukitzen dituzten 24 azpiegitura turistiko egingen dira aurten hasi eta 2007. urtea bitartean.

Eskualdeari dagokionez, ondoko orrialdean ageri diren hamar proiektu gauzatuko dira eta hamaka udalek hartuko dute dirulaguntza. Eskualdeko proiektuen aurrekontua

805.572,48 eurokoa da eta Iruñetik 517.391,93 euroko dirulaguntza hartuko dute hamaka udal horiek.

Diruz lagundu diren proiektuak bide turistikoak egokitzeko, turismorako erabiliko diren azpiegiturak eraikitzeko edo moldatzeko, aisialdirako eremuak sortzeko eta paisai ondarearen edo lekuko kulturaren osagaiak zaharberitzeko eta txukuntzeko izanen dira. Baztanen eta Etxalarren, ondare arkeologikoaren eta naturalaren inguruko ibilbide tematikoak egingen dira; Bertiz eta Elgorriaga arteko bi-

dea moldatuko da; Beran, Bidasoako piraguismo zentroa eraikiko da; Elgorriagan, uraren interpretazio zentroa eta minigolfa egingen dira; Lesakan, Agiñako estazio megalitikoak bultzatuko da, Oitzen laxoa eta artisautzaren zentroa; Urdazubin, Salbatore monastegia irekiko da; Urrotzen, Leurtzako natur eta jolas parkean zerbitzu berriak eskainiko dira eta Zugarramurdiko lezeetan argiztapen apaingarria jarriko da.

**1997AN ABIATU ZEN EGITASMOA**

«Nafarroako Mendialdea Helburuaren Kalitatea» proiektua 1997an hartu zuen Espainiako Turismo Zuzendaritza Nagusiak, estatu osoan landa eremuetan kalitateko turismoa garatzeko egindako zortzi programen barnean. Nafarroako mendialdeko 55 udal bildu ziren proiektu honetara eta Espainiako Kalitate Turistikoaren Institutuko kide den Cederna-Garalur elkarteak kudeaketaz arduratu zen.


## TURISMO AZPIEGITURAK INDARTZEKO PROIEKTUAK ESKUALDEAN

### BAZTAN

#### BAZTANGO MONUMENTO MEGALITIKOEN GIBELETIK

Elizondoko Jorge Oteiza Museo Etnografikotik abiatuta ibilbide tematikoak proposatuko dira. Elizondoko herrigunea eta Baztan errekararen Ekosistema ibilbide tematikoa egin ondok, autoa hartu eta ibilbide megalitikoaren abiapuntura: trikuhari handiei bisita, Beartzundik Ifarbilera; Urlegi, Eskosko, Maistrugain eta Gorramediko harrespilak eta Erberean paseoa.

Aurrekontua: 120.000 €  
Dirulaguntza: 77.071,94 €



### BERA

#### UR-BIZI, BIDASOAKO PIRAGUISMO ZENTROA



Iparkarrikan, Xubizabalea inguruan eraiki eta lanean jarriko da Bidasoako piraguismo zentroa. Interes Komunitarioko Lekua izendatua dagoen erreka bazterrean egingen da, kirol honen praktika bultzatzeko, herriak duen leku erakargarrietako bat arautu eta errekararen inguruan gaur egun ez duen produktu turistikoa garatzeko. Eraikinaz gain, ingurua ere urbanizatuko da haurrendako parkea eta berandu-lekua eginez eta erreka bazterra berreskuratuz.

Aurrekontua: 111.000 €  
Dirulaguntza: 71.291,54 €

### BERTIZARANA-DONEZTEBE

#### BERTIZ-ELGORRIAGA BIDEA

Bertizarana, Doneztebe eta Elgorriagan barna doan bidea moldatu eta zolaberrituko da. Bideko leku bereziak (ikaztegiak, labaderoak...) zehaztuko dira. 15 km ditu bideak, baina erraza da Bertizko Parkeetik herrietara joan nahi duen edonorentzat.

Bertizaranako aurrekontua: 24.102,65 €  
Bertizaranari dirulaguntza: 15.480,32 €  
Doneztebeko aurrekontua: 74.550,11 €  
Doneztebeber dirulaguntza: 47.881,01 €



### ELGORRIAGA

#### AISIALDI (MINIGOLF) ETA URAREN INTERPRETazio ZENTROA

Errota batean uraren interpretazio zentroa (uraren erabilera, baina, osasuna, kontsumoa...) eta ur minigolfa egingen dira. Gaur egun errota, presa 100 metrora eta biak lotzen dituen kanala daude. Kanalarari adar ezberdinak eginez (saltoak, presa tikiak, zuloak...) ur



gaineko minigolfa egingen da.  
Aurrekontua: 120.000 €  
Dirulaguntza: 77.071,94 €

### ETXALAR

#### ZENTINELA ETA USATEGIETAKO BIDE TEMATIKOAK

1. Zentinelako Bide Arkeologikoa. Oinez, bizikletaz nahiz zaldiz aisa egiteko ibilbide zirkularra, iratzeleku eta belagietan barna. Erakunde ofizialek oraindik katalogatu gabe dituzten, baina nabarmenak diren aztarnategi arkeologikoak ikusiko dira.

2. Usategietako bidea. Edozeinek egiteko moduko bidea, ongi seinalizatua. Hasiera eta helmuga, Lizaietan edo Usategieta jateko ondoko aparkalekuan, bietako edozeinetan izan daiteke. Usategi famatuaren instalazioak ikusten ahal dira, paleta-postuak, sareak...

Aurrekontua: 47.309,60 €  
Dirulaguntza: 30.385,35 €



### LESACA

#### LESACA-AGINAKO ESTAZIO MEGALITIKOAK

Monumento megalitikoaren inguruan bide tematikoa egingen da Agiña inguruan. Ondarearen Interpretazio Zentro batekin osatuko zen proiektu handiago baten barnean dago. Errekurtso honen inguruan giroa sortzeko bide ezberdinak egingen lirateke: kirol bidea, mendi bizikleta bidea edo monumento megalitiko-historikoaren bidea.

Aurrekontua: 70.000 €  
Dirulaguntza: 44.958,63 €



### OITZ

#### LAXOA ETA ARTISAUTZAREN ZENTROA



Laxoa eta guanteak eskuz egiteko lanbidearen inguruan Posadan egingen den erakusketa: Informazio panelak eta jokari buruzko argazkiak, laxoaren osagarriak, herriko eskulangileek egindako produktuen erakusketa... Hilean behin eskulangileak lanean ikusteko modua izanen da, bertako gastronomia dastatzen den bitartean.

Aurrekontua: 15.000 €  
Dirulaguntza: 9.633,99 €

### URDAZUBI

#### SALVATORE MONASTEGIA IBERIZ

Frontoia bota eta gelditzen den eremua Urdazubiko baliabide turistikoak (monastegia, aterpea, errota eta kanala) nabarmentzeko egokitu da. Monastegiaren argiztapena ere egingen da.

Aurrekontua: 119.589,50 €  
Dirulaguntza: 76.808,29 €



### URROTZ

#### LEURTZAKO NATUR ETA JOLAS EREMUA

Dagoeneko eskaintzen diren turismo zerbitzuak hobetuko dira, bideak hobetuz (interpretazio panelak eta ikaztegi baten erreproduktzioa, adibidez) eta elbarriandako eremua egokitu (beheitiko presara pasabidea, zerbitzuen hobetzea, zola moldatzea, eskubanda...).

Aurrekontua: 39.000 €  
Dirulaguntza: 25.048,38 €



### ZUGARRAMURDI

#### LEZEEN ARGIZTAPEN APAINGARRIA

Leku nagusiak nabarmentzeko argiztapen apaingaria eta ikusgarria jarriko da lezeetan. Infermuko erreka tonu hotzekin argituko da, kisulabeak tonu beroekin. Lezearen ganga edo boveda ere argituko da. Bigarren mailako leze eta zuloak argituko dira, beraien sakontasuna eta forma sumatzeko.

Aurrekontua: 65.020,62 €  
Dirulaguntza: 41.760,54 €



Lege Gordailua: NA-1324/85  
ISSN: 1578-4673  
Franko Itundua: 34/79  
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria  
Andutzeta, 12  
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 54 50  
Faxa: (+34) 948 63 54 57  
www.ttipi.info  
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.  
Presidentea: Pello Apeztegui.  
Kudeatzailea: Joxemai Ingoien.  
Zuzendaria: Aitor Arotzena.  
Publizitatea: Kulturkari, SLU.  
Administrazioa: Amaia Goia.  
Berriemakileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Salzar, Kontxi Klaber, Pello Zestau, Arkaitz Mendegia, Franck Dolozor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Aitzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Miteletorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Gorri, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...  
Imprimategia: Gertu.  
Erakunde laguntzaileak: Bera, Leizta, Goizuetza, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senperoko udalak, Zugarramurdiako Akelarre elkarte, Bortziriako Euskara Mankomunitatea, Mainerreko Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sarriak:

Hego Euskal Herria	28 €
España	28 €
Ipar Euskal Herria	40 €
Europa	40 €
Amerika	105 €
Baztan, Urdazubi, Mainerreka eta Leizta	23 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernua laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Berako Kultur Batzordeak eskerrona

Berako Kultur Batzordeak eskerrona agertu nahi dio urriaren 12an hil zen Juan Iarramendi margolari beratarrari, utzitako ondareagatik eta eskualdean oro har, eta bereziki Brako herrian, pinturarako sortutako afizioagatik. Bide batez, bere samina eta dolimina helarazi nahi die bere hurbilekoei eta senideei. Herriko kulturetzari egindako ekarpenagatik, esker mila.

### Berako Kultur Batzordea.

### Etxekoandrentzat Gizarte-Segurantzako Hitzarmen Berezia

Gaia: Etxekoandrentzat Gizarte-Segurantzako Hitzarmen Berezia, gaur egun 60 urte inguru duten emakumeak eta beraien lanpostua ezkonterakoan utzi zutenak (garaiko ohiurak segituz). Senarraren Gizarte-segurantzaren babesean gelditzen baziren ere, NORBERE PENTSIOA IZATEKO ESKUBIDERIK GABE gelditu dira (alarguntasunetik independenteak).

Hankasartzerik edo egokiak ez diren ekimenik ez egiteko, beharrezkoa da guzti-guztiekin jakitea (asko baitira) 2003ko urriaren 13an (18ko BOEan) TAS/2865/2003 Agindua atera zela, Gizarte-Segurantzaren Hitzarmen Bereziko arauak markatzen dituenak. Agindu hau

"larrosa ederra" edo "arantza zorrotza" izan daiteke, arestian aipatutako etxekoandreek gaur egun duten egoeraren arabera:

A) "Larrosa ederra":  
Nik egiazko kasua kontatuko dut eta bakoitzak atera ditzala bere ondorioak:

1962an Gizarte-Segurantzaren alta eman zuten langileak. Ezkondu eta lana utzi zuen 1973an. 11 urte, x hilabete eta x egun lan egin zuten. Hitzarmen Berezian bitartez urte hasieran lortu dituen kuotak hauek dira: Ordaindu beharreko kuota, hilean 204,94 euro. Oinarria: 770,40 euro.

Ez du ordaindutako lanetan aritu beharrik. Ez du ikuskaritzarik izango. Baina ez luke (noski) eritasun-bajarik kobratuko, (ez baita "bajarik" existitzen).

B) "Arantza zorrotza":  
Gaixoak zuek, dituzuen urteekin soldatapean lanean hastea go-

goratu zitzaizuenak eta Gizarte-Segurantzaren prestazioekin gozatzea amets egin zenutenak!

Ausardia eta kemen hori (inoiz izan behar ez zen baina izan zen egoera baten ondorio) oso gogor ordaindu beharko duzue: zigorra hau izan da, ez duzue Hitzarmen Berezian sartzeko aukerarik izan "kotizatzeari utzi aurreko hamabi urteetan 1080 egun kotizatzen ez dituzuen bitartean". Seme-alabek esaten zizueten bada, lan egitea txarra dela, zigorra dela. Arrazoiak izaki! Zigora hauxe da, jubilazioari begira (jornala aparte utzita) hobe zela ez kotizatzea. Horrela, gainera, ez zuten 60 urtetik gora duzuen urtean behin baino gehiagotan egiten ahal zizueten ikuskaritzak jasan beharrik izan, ezta paper artean ibili beharrik ere.

J.O.

## KULTURKARI

PUBLIZITATEA • ZERBITZUAK

Tel: 948 635 458  
Faxa: 948 635 457  
Andutzeta, 12 - 31760 ETXALAR

Mahal gaineoak    Sakelekoak    Zintzilikatzeoak

Egutegiak.....

Loteria talonarioak.....

zuk behar duzun guztia

LOGOTIPOAK • FAKTURAK • KARTAZALAK • FOILETOAK  
BUZOIRATZEKOAK • TXARTELAK • KARTELAK • ALDIZKARIAK...

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Berria 2005-10-22

«Bertso-eskolen egoera hagitz ezberdina da herrialde batetik bertzera. Herrialde bakoitzean ere, hagitz gune ezberdinak daude. Normalki, euskal guneetako eskolak dira indartsuenak, baina erdal guneetan ere indarra daukaten bertso eskolak daude. Orokorrean, egoera ona dela deritzot, lekuan lekuko arazoak daude, baina osasun oneko mugimendua da; hori bai, beti izanen da lana non egin».

Erika LAGOMA  
Bertsozale Elkartea  
Berria 2005-10-22

«Herriaren erdigunea oinezkoendako prestatu nahi badugu, hagitz beharrezkoa izanen da aparkaleku zona berriak sortzea. Landazelaia inguruan aparkaleku toki interesgarria izanen da. Egin nahi ditugun aldaketekin bizi-kalitatea berreskuratuko dugu eta koxteen okupazioaren ondorioz galdutako espazioak ere berreskuratuko ditugu».

Gabi IGARZABAL  
Lesakako zinegotzia  
D.Navarra 2005-10-27

• 11 GALDERA LABUR •

Duela 44 urte joan zinen Ameriketara. Zertan aldatu da Aurtitz?

Etxe berri aunitz, lehen baino herri garbiagoa; ez dago zerri eta behirik atarian. Baina mendiak eta belagiak zikinagoak, sasiz beteak daude.

Artzain lanean ibilia... Bakardadeak handiago egiten du herrimina?

8 urte bakarrik egon nintzen mendian lanean, bideak non zeuden jakin gabe, hori hagitz beltza zen. Kaxkabel-suge tartean eta ni bakarrik.

Jardinero ari zara orain. Artzain lana edo jardineroarena nahiago?

Lehenik artzai, minatan, letxerian, kamionero eta azkenik 31 urte jardinerro. Denetatik, jardinerro nahiago.

Bildots batek edo lore batek, zerk behar du kuido gehiago?

Loreak, klase aunitz daude eta bakoitzak bere mainak ditu.

Amerikan omen da Euskal Herriko zortzigarren probintzia... Hemen ego ezagun aunitz dituzu han?

Bai, 10 inguru, eta horiek 5 edo 6 orduko bidean. Igandero elkartzen gara denak, eta ongi bazkaldu eta gero, mus partidak ez dira faltatzen eta orduan euskaraz aritzen gara.

San Martin bestak edo ifauteriak?

Hemendik joan nintzenetik San Martinak ez ditut ikusi. Ifauterietan etorri naiz eta nahiago ditut.

Hemen zaudenean, Aurtizko joaldunen gidari zara... Zu gabe ibiliko ote dira xuxen?

Gidariak, lerro luzea bada, atzekaldean daudenei pausua erraztendie, baina ni gabe ere moldatzen dire.

Aizkora, pilota edo... beisbola?

Pilota. Lehen Ameriketara pilotariak bidaltzen zituzten eta guk ikusten genituen, baina orain ez dute gehiago bidaltzen. Zezenak ere gustatzen zaizkit.

Erretiratzen zarenean, Aurtizera bertirako bueltatzeko intentziorik?

Bai, nik intentzioa bai eta gustatuko litzaidake, baina familiak ez du nahi. Ikusi beharko dugu.

Ameriketako zelaia edo Aurtizko belagiak eta mendiak?

Hemengoak nahiago. Hau naturala da eta hura artifiziala.

Hemengo zer eramanen zenuke zurekin Ameriketara?

Joaldunen joareak, bizkar larua, gazta, behi puztan motza, artopila erretzeko plantxa, gaztainak erretzeko zartana...



Anastasio APEZTEGIA  
Ameriketara bizi den aurtiztarra

**Alberto RETEGI**  
Altzate, 17 BERA ☎ 948 630 763  
abokaturia

**ZUBIONDO JATETXEA**  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TLF 948 625 472  
sagardotegia jatetxea sagardotegia

☎ 948 631462  
Altzate 1 • BERA  
**Xirell**

**SAROB** SANDERS pentsuak  
okindegia  
Ezlagara, 41 - Tel. 948 630 889 - BERA

**LEGARRA**

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOA
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOA

Egunero irekia  
Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

**ZJ**  
**Zalain**  
jatekua  
Hostala  
14 logela,  
bainu eta TBrekin  
☎ 948 63 05 47  
Bera - Nafarroa

**Ituzia**  
Iorezaintza  
Fermin Marijorena Laralde  
☎ 666 407214 • 948 631199 • BERA

## ABELZAINZA

# Ehizari buruzko XIII. Jardunaldi Gastronomikoak hasiak dira

Hamabi jatetxek parte hartzen dute

## ttipi-ttapa

Urriaren 29tik azaroaren 27ra egiten ari dira Bertizko Partzuergo Turistikoak antolatzen dituen Ehizari buruzko hamahirugarren jardunaldi gastronomikoak. Aitzineko urteetan bezala, menuak ekarriko dituen karpeten azala eskualdeko margolari batek egin du. Aurten-

goan, Zigako Margari Aizpururen «Suzko argia» margolana izanen da ikusgai.

Jardunaldi hauetan, eskualdeko hamabi jatetxek, ohiko zerbitzuaz gain, ehizako gaiekin prestatutako menu bereziak ere eskaintzen dituzte. Almandozko Beola jatetxea, Arantzako Aterpe eta Burlada, Be-



Margari AIZPURU

Margari Aizpururen «Suzko argia» margolana agertuko da ehiza menuetan.

rako Zalain, Donamariako Benta, Doneztebeko Ameztia, Elgorriagako Hilarion, Elizondoko Eskisaroi, Igantzioko Igantzi eta La Villa eta Lesakako Kasino eta

Koxxonta jatetxeak izanen dira aurten ehizari buruzko jardunaldi hauetan parte hartuko dutenak, 16,50 eta 30 euro arteko menuekin (BEZ eta edaria kanpo).

Bertze urteetan bezala, borts bikoterendako bazkariak zozketatuko dira. Horretarako, menuarekin aurkezten den galdetegia erantzun beharko da.

## AZAROAK 4, ORTZIRALA

22:00ETAN EGUZKI OSTATUAN  
UGAZTUN BATEN ANTSIAK  
TERESA LOPEZ DE MUNIAN

## AZAROAK 11, ORTZIRALA

22:00ETAN ZIZKA OSTATUAN  
NORA HOA, NESKA?  
TXIRENE TALDEA

## AZAROAK 18, ORTZIRALA

22:00ETAN LIXOIA OSTATUAN  
KE TAKOIAK  
BELE-BIZI TALDEA

## BERAKO VII. KAFE-ANTZERKI ZIKLOA 2005

ANTOLTAILEA:

LABURTAILEA:

Berako Euzko Batzordea





**BERA**

## Oroimena lantzeko ikastaroa prest du Gizarte-Ongizate Batzordeak

2006ko Nafarroa Oinez Labiaga ikastolaren esku

**Amaia eta Ainhoa**

Udaleko Gizarte-Ongizate Batzordeak autonomia indibiduala mantendu dezaten, adinekoen oroimena landu eta hobetzeko ikastaroa antolatu du. Programa honek memoriaren funtzionamendua ezagutu eta hobetzeko teknikak ikasi nahi duten lagunei zuzenduta dago. Normalean, adinarekin gaitasun kognitiboak murrizten dira eta gehien ematen den arazoa oroimen murrizketa da. Oroimena arrazoi ezberdinengatik gal daiteke baina orokorrean, arrazoi nagusia adinarekin lotuta dago. Arazo arunt hau moldatzen laguntzeko antolatu da ikastaroa. Garuna lantzeko gimnasia antzekoa izanen litzateke. Amaia Pando Berako sikologoak oroimena zer den, nola funtzionatzen duen eta nola hobetu daitekeen azalduko du. Zerbait ahazten denean sortzen den antsietatea murrizten ere erakutsiko du, autoestima hobetzen eta parte hartzaileen arteko komunikazioa bultzatuko du. 60 urtetik gortiko lagunendako izanen da ikastaroa, gaixotasun men-



Argazkiak: AITOR A.

Eguraldiarengatik kiroledegira eraman zen Lurraren Eguneko eskulangileen erakusketa eta bertze hainbat ekitaldi. Halere, jende aunitz bildu zen.

talik ez dutenentzat. Azaroaren 8tik otsailaren 21a bitarte egingen da asteartetan 17:00etatik 18:30etara.

### Heldu den urtean Nafarroa Oinez Beran

Urriaren 15ean jaso zuen Labiaga Ikastolak 2006ko Nafarroa Oinez antolatzeke lekukoa. Berako ikastolak 1983 eta 1994an ere hartu zuen ardura hori, eta beraz, 2006koa hirugarren aldian izanen da. Datoren urtekoa 26. edizioa izanen da eta Berako

ikastolak biltzen duen dirua bere egoera ekonomikoa arintzeko erabiliko du. Izan ere, DBH ez dago kontzertatua eta egoera honek inbertsio handiak egitea eskatu die azken urteotan. Lan handia izanen dute hementik aitzinera, eta horretarako, jendearen partehartzea lotu nahi dute. Hala, egun hori prestatzeko bere laguntza eman nahi duenak, Labiaga Ikastolara hurbiltzea eta bere burua lanerako eskaintzea proposatu dute Berako ikastolatik.

**FLASH**

### Kotto eta Imanol Larrañaga berriz ere kartzelean

5 eta 7 urte arteko kartzela zigorra betetzeko omen dutenez, urriaren 21ean, Entzutegi Nazionalak Jose Angel Alzuguren, "Kotto", eta Imanol Larrañaga abilotze eskatu zuen. Kottori 2005eko urtarrian zazpi urteko kartzela zigorra jarri zion epaileak, eta Imanol Larrañagari bortz urtekoa. Imanol Guardia Zibilak abilotu zuen Beran kontrol batean, eta Kotto-ren bila Polizia Nazionala joan zen.

### Kafe Antzerki Zikloa

Ortziral honetan, Kafe antzerki zikloaren barnean dagoen antzeslana ikusi ahal izanen da Eguzki ostatuan. «Ugaztun baten antsia» ikuskizuna izanen da azaroaren 4an 22:00etan.

## Ttipi-Ttapa Telebista ikusten ahal da Eskolamendiko antenatik

Etxeke antena Frainera begira duten etxeek 33. kanalean sintonizatuko dute Ttipi-Ttapa, eta Eskolamendiko errepikagailutik hartzen dutenek, horiek 27. kanalean sintonizatuko dute.

### ANTENA KOLEKTIBOAK ERE BERSINTONIZATU BEHAR DIRA

Antena kolektiborik ez den etxeetan, etxeke telebistaren urrutiko kontrola erabiliz erraza da sintonia berria bilatzea, telebistak berak egiten baitu automatikoki. Pisu etxeetan, beharbada, beharrezko izanen da teknikoari deitzea.

**ANSONEA** *Jaletxea*  
Eguneroko menua, karta eta asteburutan menu bereziak  
Terraza estalia eta Ziberkafelegia  
Foruen Plaza 1 • 948 631 155 • BERA

**BERA**  
Zure ingurua klase guzietako insektuz (komorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu, deitu! Termita eta Pipien tratamenduak  
Industria Garbitasun Produktuak  
Tel: 948 630 155 (Alkaiaga Industrialdea) LESAKA

arropak • mairidireak  
mantak • nordikoak  
toallak • kortinak  
alfonbrak  
**Goya**  
Bera  
Alzuru, 5 • Tel: 948 630 082

## LESACA

# Igerilekua estaltzeko lanak lehiaketara atera ditu Udalak

Mugikortasun iraunkorrari buruzko saioak egiten ari dira

Aitor AROTZENA

Igerilekua estaltzeko lanak lehiaketara atera ditu Udalak. Lanen hasierako aurrekontua 3.492.926,89 eurokoa da eta lehiaketan parte hartu behar duten erakuntza enpresek azaroaren 16a baino lehen aurkeztu beharko dituzte proposamenak Herriko Etxean. Igerilekua estaltzeko proiektua Pedro G. Burguera, Jose Javier Herrera Gonzalez eta M<sup>a</sup> Jesus Vilas arkitektoek idatzi dute. Gainera aipatuta, gaur egun berdegunea dagoen lekuan egiten litzateke igerileku estali berria. Jacuzzi eta bertzelako zerbitzuak ere jarriko dira. Ostatu aldetik begiratuta, eskuintan dagoen igerilekua bere horretan utziko da udan erabiltzeko eta ezkerrekoa lurrez estaliko da, bertan berdegunea egiteko.

## Mugikortasun iraunkorrari buruzko informazio saioa

Udalak lankidetzat hartzen sinatu zuen Aceralia eta Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentroarekin. Hi-



ARGAZIA: AITOR

## Amasa, Txanpalenea eta Oladrienero orubea etxebizitzak egiteko salduko da

Amasa, Oladrienea eta Txanpalenea Beheko Plaza 7an eta ondoan hartzen duten orubea saldu gogo du Udalak. Asmoa, 13 etxebizitza, garajeak eta lokalak egitea da eta salmentarako lehiaketa deialdia egin du Udalak. Hasierako prezioa 747.774,24 eurokoa da (BEZ barne) eta interesatuek proposamenak azaroaren 23a baino lehen aurkeztu beharko dituzte. Argazkian ageri denez, joan den astean argindar eta telefono kableak kentzen aritu ziren.

tzarmen horren bidez, joan den udaberrian «Mugikortasun iraunkorraren inguruko sensibilizazio eta bultzatze programa» abiatu zen. Programan parte hartzen ari diren pertsona eta entitate guztiei zein herritarrei zuzendutako informazio saioa egin zen urriaren 24an udaltxean. Lehenik, programa honen barne egindako jarduerak aur-

keztu zituzten udal ordezkariak. Ondotik, hitzarmena sinatu duten alderdiek solastu zuten. Tailerren ondorioen aurkezpena egin zen eta etorkizunean izan daitezkeen ekintza lerroak eta lanaren jarraipena zehaztu ziren. Manu Gonzalez, mugikortasun iraunkorreko programetan aditua den Haizeako teknikariak bertze udalerrietan izan-

dako esperientzia aurkeztu zituen eta mugikortasun plan bat zer den eta nola egiten den azaldu zituen. Arantxa Arregi, Cederna-Garalur elkarte toki garenako agenteak eskualdean mugikortasunari buruzko «lan mahala» sortzeko aukeraz aritu zen eta ondotik, bertaratutakoek beraien zalantzak eta proposamenak agertu zituzten.

## FLASH

## Ainara Fresneda espetxeratu

Bortz urteko kartzela zigorra betetzeko omen duenez, urriaren 21ean abilotu zuen polizia, Ainara Fresneda lesakarra eta Iruñeko kartzelara eraman. Erakunde armatuarentzat lantzadera lana egitea leporatu zioten Ainarari. 2001ean hilabete batzuk kartzelan eman ondotik, bere eritasunarengatik etxera ekarri zuten, nahiz eta eguneko 24 orduetan Guardia Zibila etxe atarian zaintzan egon.

## Herritarrik gabe Euskal Herriko bertsolari txapelketan

Aitzineko alean aipatu genuen Xabier Silveira, Joxe Juan Zubieta «Etxabe» eta Estitxu Arotzena Euskal Herriko Bertsolari txapelketan parte hartzen ari zirela. Bada, hiruak txapelketatik kanpo gelditu dira eta ez da herriko ordezkariarik izanen final aurrekoetan.

## Lurraren Eguneko sagardo onena Joxe Mari Elgorriagarena

Berako Lurraren egunean egin zen VIII. Sagardo Lehiaketan txapela herrira etorri zen. Joxe Mari Elgorriagak irabazi zuen oroigarria eta 200 euroko saria. Arantzako Simonenbordako Madariaga eta Lesakako Aialdeko Otxoteko izan ziren bigarren eta hirugarrenak.

**XATURETXEA**  
ZAHAR  
JATETXEA  
948 637 027 - LESACA

**GOZZALDO**  
MANTILAK  
948 637 027 - LESACA

**IRU BIDE**  
MANTILAK  
Tfno: 948 637 127  
LESACA

**TOITAK-MANTILAK**  
Eskolako haurren mantilak etab...  
bordatzen ditugu  
Herriko bestetarako, kamisetak, eta blue pefa bakoitzaren logotipoa eta izenkin bordatzen ditugu  
Izen Plz. Berri 4ra eta Iruñeko eskolara!!! Tel: 948 637 660 - 681 481

## ETXALAR

# Eguraldi ederra baina usorik ez zen pasatu Usategietako igandean

Larunbatean hamabortz hirukotek parte hartu zuen tortila lehiaketan

Joseba eta Nerea

Urriaren hirugarren asteburua berezia izaten da etxalartar guztientzat, astebukaera horretan usoen besta ospatzen delako. Nahiz eta igandea egun nagusia den, gazteek larunbatetik hasten dute besta eguna. Garai bateko gaupasa eta kontzertuak alde batera utzi diren arren, herriko gazteei ez zaie egun horretako grina bukatu eta aurten gauza berriak antolatu dituzte. Urriaren 15ean Etxalarko I patata tortila lehiaketa antolatu zuten, eta arrakasta handiz, 15 hirukotek parte hartu baitzuten. Tortila guzti horiek dastatzeko eta epaitzeko hiru sukaldari egon ziren, La Basqueko Antonio, Elutsako Pakita eta Herriko Ostaturuko Julen. Beraien erabakia plazaratu zuten eta Tolareko bordako Lourdes Galaregi, Behekozubiko Ainhoa Berrueta eta Aldalurereko Garbife Maiak egindako tortila izan zen



ARRAKASTA

Ezusteko arrakasta izan zuen lehendabiziko patata tortila lehiaketak. Hamabortz hirukotek parte hartu zuten.

onena. Frontoira hurbildu ziren guztiek tortilak dastatzeko aukera izan zuten.

20:30etan Zo-zonga perkusio taldeak herriko bazterrak doinu brasildarrekin alaitu zituen eta 21:30etan, azken urteetan egin ohi den bezala, 80 lagun bildu zituen gazte afaria izan zen Herriko Ostaturan. Afariaren ondotik, berriro ere danbor hotsak

nagusitu ziren plaza inguruan. Eguna ongi bukatzeko hainbat gazte bildu zen txapelketako tortilekin gosari ederra egitera.

Usategietako igandean eguzki ederra izan genuen, eta jende antzeko aprobeztatu zuen larmendiko gainetik bueltaxka emateko eta usazaleek lana nola egiten zuten ikusteko. Baina eguraldiak lagundu

arren, ez zen usorik pasatu. Arratsalde partean, besta giroa herrira jautsi zen. Arratsaldean Jalisko Band-en dantzaldia hasi zen, eta frontoiak Altxatak paratutako ostaturan taloak eta bokadiloak jan zitezkeen trago eder batez lagundurik.

Ilunabarrean herriko dantzarien aldeko zozketa egin zen eta hauek dira zenbaki saridunak:

## Guraso Elkarte berria

Urriaren 13an Landagian eskolako gurasoak bildu ziren, urteroko batzarra egiteko eta bertzeak bertze, junta berritzeko. Aurten bi dira batzordetik atera diren gurasoak, eta beraz, bi berri sartu dira. Ateri direnak Inma Garcia, orain arte lehendakaria zena eta Karmele Indaburu dira. Eta sartu direnak, berriz, Ana Mari Indaburu, lehendakaria, eta Arantxa Perugorria, lehendakari ordea. Hauetaz gain, Maria Jesus Torres idazkari lana egiten duena, Angela Torres diruzaina eta Ageda Goienetxe eskolako kontseiluko ordezkaria dira junta osatzen dutenak.

1. saria 0382 zenbakia-ri egokitu zitzaion eta le-sakar bati suertatu zaizkio hain preziatuak diren 12 usoak. 2. saria 3461 zenbakia-ri dago-kio, baina Herriko Ostaturan bi laguntzako afariak ez dauka jabe-rik oraindik. Eta bukatzeko 3. saria, hau da, kanpin denda Arantxi-piko Garazi Remonek eskuratu zuen 4271 zenbakia-ekin.

**HERRIKO**  
OSTATURU - JAVIERRE

Herriko Ostaturu, s.l. - 48121 M. D.  
Tolosa - BIZKAIA

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko Istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

**USOA**  
nekazari kooperatiba

ganaduarentzat  
pentsurik egokiena

Tel: 948 625 214 - **ETXALAR**

**DEÑE**

Lehiaketa  
Aholkularitza

948 627 514  
Herriko Diaca, 8 - LESAKA

## ARANTZA

# Serorenbordako Madariagatarrak saritu dituzte Lurraren Eguneako lehiaketetan

Lesakako Beti Gazte elkarteak soinketa eta dantza ikastaroak antolatu ditu

## Nerea ALTZURI

Urriaren 23an, Berako Lurraren egunean egin ziren gazta eta sagardo lehiaketetatik, sariak ekarri dituzte herri- ra. Gazta lehiaketan, hamazazpi gazta aurkeztu ziren. Margari Madariagak, XIX. gasna lehiaketan lehenengo saria eraman zuen eta 220 euro eta oroigarria etxeratu zituen. Iaz ere, sari potoloa berak eraman zuen. Bertzalde, Bortzirietako VIII. Sagardo lehiaketan, Juanjo Madariagak bigarren postua lortu zuen eta 50 euroko saria eskuratu zuen. Sari banaketaren ondotik gazta enkante- ra atera zen, 170 euroan salduz. Serorenbordatik ateratako gazta eta sagardoa beraz sarituak izan ziren Beran.

## Pilotari gaztetxoak lanean

Urriaren hasieran abiatutako Bortzirietako binakako bosgarren txapelketan hamar harritar



ARGAZKIA: Odoak TXOPERENA

## Mendi bizikletan bikain

Asier Apezetxea gazteak, elite mailan, Pirineotako openeko probak egin ditu. Joan den igandean, Agoitzen, laugarren proba eta azkenekoa egitekoa zuen. Bitartean, lehenengo saioa Eugin egin zuen eta laugarren postua lortu zuen. Bigarren eta hirugarren probetan, Larasogainen eta Jaurrietan eginikoetan hurrenez-hurren lehenengo izan zen. Asierrek gogor entrenatzen jarraitzen du. Orain arte, Berako Katea Biken babespean taldean lan egin du eta Berako eta Sunbillako probetan emaitza onak lortu ondotik aski pozik gelditu da. Orain Iruñaldeko Saltoki taldean ari da.

parte hartzen ari dira. Aurrebenjaminetan, Andoni eta Xabi Taberna; benjaminetan, Jon Mazizior Jokin Pinatxo be-

ratarrarekin; Alebinetan, Ibai Etxeberria eta Markel Jorajuria; infantiletan, Jon Jorajuria Alex Eizagirre beratarrare-

kin; eta kadetetan, Unai Iparragirre eta Josu Lartrexea eta Andoni Mixelena eta Jon Altzuri. Aitzineko bi igandetan,

herriko frontoian bederatzita partida jokatu dira, bertakoak nahiz kanpo-koak diren pilotarien artean.

Bertzalde, Nafarroako banakako txapelketan eta jubencil mailan, Imanol Mixelena eta Joseba Madariaga lanean ari dira. Hogeitabi urtez azpiko kategorian ber- riz, Beñat Mixelena eta Joseba Pikabea pilotarie- k banakako txapel- keta jokatzeko jarraitzen dute.

## Soinketa eta dantza ikastaroak

Lesakako Beti Gazte elkarteak, gimnasia eta dantza ikastaroak antolatu ditu. Jazz dantza, balleta, batuka eta helduentzako soinketa ikastaldiak izanen dira hilabete honetan hasi- ta. Izena emateko epea itxi zen joan den igan- dean eta hurrengo kro- nika-ko, antolatzen di- ren ikastaroen ordute- giak bilduko ditugu.

**ERROTAR**  
harategia

Bertako produktua

Etegara, 3  
Tel: 948 630 088  
BERA

**TALLERES BERRIZAUN**  
GASOLINERA LESAKA  
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA  
Gasola etxera eramaten dugu

Tel. 948 63 74 60      31770 Lesaka (Nafarroa)

**Lanchas**

PARKETAK - TARIMAK  
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA  
ESTALDURA OROKORRAK

Bera - Tinea: 948 630 735 - 407 404 781

Jose I. Gonzalez Enguita

Pintura lanak orokorrean

948 234 400  
948 230 600

Berako - 40 - 1. auzo  
31700 BEREA

**ERREKA DE**

OSTAUA

PLATER  
KONKURTATUBAK

PINTXOAK

BOLATIAK

Tel: 948 630 254 600

## IGANTZI

# Zazpi haur hasi dira larunbatero bertso eskolan

Albinte berriak, Jokin Zabaletak, hilabete pare bat darama lanean

Oskar TXOPERENA

Urtea joan da Udalbatzak albintea kontratatzeko erabakia hartu zuenetik. Urtetako hutsunea izan du herriak lan-tegi horri dagokionez, aspaldian jubilatua baitzen aurten hil zai-gun Kruzito Ariztegi.

Behin erabakia hartuta, epea ireki zen lanpostua lortzeko frogak egin nahi zituzten guzientzako. Aurkeztutako 13 lagunek udaberrian eta uda hasieran egin zituzten langilea aukeratzeko frogak. Froga teorikoak lagun bakarrak, Jokin Zabaletak, gainditu zituen. Jokinek froga praktikoak ere arazonik gabe gainditu zituen Udalbatzak lanposturako bera izendatu zuen.

Iruritan bizi baldin bada ere, berez leitzarra da Jokin eta irailaren hasieraz geroztik herrian ikusi izanen duzue lanean. Lanera ongi egokitzea eta gustora ari-



Jokin Zabaleta

tzea opa diogu Jokini, eta herritarrekin ongi moldatzea, nola ez!

### 21 Agenda

Urriaren 27an, izan zen Biltokin 21 Agendari buruzko informazio zabalteko bilera. Prometea taldea Bortzrietan egiten ari den lanean 300 bortziritar ingururi - 22 igantziari, bertzeak bertze-galdetu diete gure eskualdean dauden zerbitzu, bizimodu eta beharrei buruz. Inkesta horren emaitzak eman zituzten aditzera. Zer-bait aipatzeagatik, komunikabideak -errepideak, garraioak...- dira kezka nagusia.



Argazkia: Oskar TXOPERENA

Aitzineko alean ikastaro multzo handi baten hasieraren berri eman genuen, baina argazkian ageri den taldeak bertsoetan ikasten hasi behar zuela ez genuen aipatu ere. Bagenekien bat edo bertze hasteko asmotan zegoela, baina bertzerik da horrelako talde polita herrian osatzea. Larunbat arratsalde-ro elkartuko dira eskolan Bortzrietako Bertso Eskolaren eskutik, Estitxu Arotzena bertsolariarekin, hain zuzen ere. Azken urteotan gai honetarako-giro berezia nabaritu da eskolan, eta horren ondorio da seguruenik orain igantzin lehenbiziko aldiz ikastaro hau antolatu izana. Ea gaztetxo talde horretatik -Iker, Adur, Unai, Eneko, Janire, Ane eta Maria- ateratzen zaigun gero plazaz-plaza ibiliko den bertsolariaren bat. Zeinek dakit!

## Herria ezagutzuz

### Euskara dokumentu zaharretan

Gauza jakina da Herriko Etxeetan orain dela guttira arte eskribauak edo idazkariak beti gaztelaniaz idatzi izan dutela. Ez dago Herriko Etxeko artxiboan dokumentu zahar bakar bat ere euskaraz. Horrek ez du erran nahi eskribauak -zenbait tresna edo tramankuluren izena gaztelaniara itzuli ezinik- hitz bat edo bertze euskaraz idatzi ez zituztenik. Horrela, 1694ko kontu liburuak hauxe dio zati batean: "un yerro que llaman epata para el molino farinero". Pixka bat berandua-go, 1706an: "instrumento para los tejeros llamado escugordia para carrear tie-

rra". 1708ko honetan, beriz: "fierro que llaman erroa para la puerta de las vegas de Ygalar" -Ataka-ttikiz ari da-. Azkenik, 1722ko pasarte batean: "hazer unos fierros que llaman chimelas". Lau adibide paratu ditugu euren testuinguruan, baina bertze aunitz badaude, aski politak batzuk: "chimelas", "yguelmaia", "meateguiyas", "ardia", "charraquillas", "yngud", "dendalarria", "aska", "galiurra", "caviguña", "masocalagunas", "auspatteguia", ... eta bertze zenbait, hiru mende inguru duten hitzak, lan-tegi edo tresnei lotutakoak gehienak, garai hartako zurgin, olajaun eta arotzek erabiltzen zuten hizkuntzaren adierazgarri.

**TOLDOOS BAZTAN**

TOLDOAK salmenta-konponketa-alo-kairua-errotulazioa  
 MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak  
 venecianak-PVCzko LEIHO eta ITXITURAK

Tel-Fax: 948 631 003 - Bidasoa, 66 behea - BERA

**bortzIRUDI**  
 bortzirudi@telefonica.net

- KARTELAK - KANPUETAK - BISERAK - TROSKEROAK (bela duza nahi - Bidasoan)
- FOTOKOPIA DIGITALAK, KOLORATIAK, TURI BELTZIAK - PLANDAK
- ENKUADERNADIAK - PLASTIFINADIAK - PEPEPTEGIA - BULLEGO MATERIALA
- DISEINU GRAFIKOA - LOGOTIPOAK - ERROTULOAK - INPRENTA

Ertegora, 26 Eskualdeko Behea D - BERA - Tel-Fax: 948 631 521

**BEINTZAko OSTATUA**

© 948 450 074  
 BEINTZA-LABAREN

**SOULE**  
 hileta artea

Tel: 948 453 444  
 Mug: 629 659 583

**ARIZKUN**

## DONEZTEBE

# Interneteko Mikologia Foroaren bilkura aste hondar honetan egingen da

Azaroaren 5 eta 6an mendi ateraldiak, solasaldiak, erakusketak eta bertze hainbat ekitaldi egingen dira

## ttipi-ttapa

Interneten mikologiari buruz eztabaidatzeko erabiltzen den Micolist foroko partaideek eskualde ezberdin batean biltzen dira urtero. Aurtengoan Malerreka aukeratu dute eta Donezteben elkartuko dira azaroaren lehen aste hondarrean.

Larunbatean, azaroaren 5ean, goizeko 9etan bilduko dira partehartzaileak elizatarian eta mezan topaketa eta Micolist bedeinkatuko dira. Ondotik aureskua dantzatuko da eta zinean, Onddo eta Zizen Kofradiaren aurkezpena egingen du Jose Miguel Galarregi presidentea. Goiza akitzeko taldeka eta leku ezberdinetan mendira aterako dira eta lorategi botanikoa bisitatuko da. 14:00etan bazkaria izanen dute Amezitia jatetxean eta

16:00etan berriz ere mendira aterako dira. 18:00etan, zinean onddoak identifikatu eta prestatuko dira erakusketarako. 19:00etan, Miguel Angel Perez de Gregorio mikologo adituak "Onddoak eta Natura" gaiari buruzko solasaldia eta irudi-proiektzioa emanen du. Honek akitzen duenean, bertze aditu batek, Fernando Palazónek Morchela generoari buruzko solasaldia eta irudi-proiektzioa egingen du, espezie batzuk bereizteko ezaugarri makroskopiko eta mikroskopikoak azalduz. Antolatzaileek bi aditu hauen solasaldira agertzeko deialdi berezia egin dute, onddoaren mundua aski ongi ezagutzen baitute 20:30etan, lehen eguna akitzeko, afora izanen dute Santamaria jatetxean.

Igandean, azaroaren 6an, bezperako egitarau berdintsua izanen dute goizean. Honela, 9etan bilduko dira elizatarian, kofradiaren aurkezpena egingen du Galarregik zinean eta mendira ateraldiak egingen dira. Eguerdi partean, elizako plazan, onddo erakusketa eta artisautza azoka egingen da. Biltzen den onddo kopunaren arabera, Kofradiak prestatutako onddoak dastatzeko aukera ere izaten ahal da. Ondotik, San Migel baseliza bisitatuko da eta leihatilatik euro bat botatzeko aholkua eman dute antolatzaileek. 14:30etan bazkaria eta despedida izanen dute eta arratsaldea libre. Dena den, 20:00etan afora ere izanen da eta orduan agurtuko dira onddo eta Internet munduari "engantxatuenak".



Uztizko iragarria

## Amaia Iraolak Munduko Akordeoi Txapelketan parte hartu du

Amaia Iraola doneztebarrak Munduko Akordeoi Txapelketan parte hartu du, Iaz Arrasateko lehiaketa eta aurten Irungo Hiria txapelketa irabazi ondotik, Amalax «Virtuoso Junior» mailan lehiatzeko aukera izan du Jazzetik Tangora doan programa batekin. Txapelketa honetan parte hartzeko, aitzinetik estatu bakoitzean hautaketa egiten da. Doneztebarraren kasuan, emaitza bikain hauen ondorioz zuzenean hautatu dute. Agorreta Musika Eskolan ikasten du Iñaki Diegez maisuarekin eta gaztea bada ere, dagoeneko ETBrako eta Frantziar, Britainiar eta orain dela gutxi Eskozian jo du, azken honetan Estibalitz Mutuberria, Agorretako bertze akordeolari batekin. Bertze aldetik, joan den ekainean Irungo Gazte Orkestrarekin kontzertua eskaini zuen Irunen eta Munduko txapelketan parte hartu aitzinetik, Doneztebeko elizan.

**TOLDOAK** salmenta-konponketa-aloakairua-errotulazioa  
**MOSKITERAK-PERTSIANAK** motorizatuak  
 venecianak-PVCzko **LEIHO** eta **ITXITURAK**  
 Tel-Fax: 948 631 003 - Bidasoa, 66 behea - BERA

**PAGOLA**  
**EMBUTIDOS**  
*artesanos desde*  
**1940**  
 Alzateko Plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

## MALERREKA

# Ahozko tradizioa biltzen du «Malerreka solasean» liburuak

92 lagunekin egindako elkarrizketak biltzen ditu

ttipi-ttapa

«Malerreka solasean, ahozko tradizioaren bilduma» izeneko liburua eta DVDa aurkeztu zuten urriaren 13an Malerrekako Mankomunitatean egindako prentsaurrekoan. Ekitaldian, Maite Lakar eta Amaia Apaulaza lanaren egileak, Mikel Gartzia Malerrekako euskara zerbitzuko teknikaria, Mikel Petrirena Malerrekako Mankomunitateko ordezkaria eta Elea argitaletzeko Mikel Belasko izan ziren.

Duela lau urte Malerrekako ahozko tradizioan sakontzeko beka deialdia egin zuen Mankomunitateak. Maite Lakar eta Amaia Apaulazak hartu zuten beka eta lau urteotako emaitza izan dira argia ikusi du-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO  
Mikel Petrirena, Mikel Gartzia, Amaia Paulaza, Maite Lakar eta Mikel Belasko, urriaren 13an «Malerreka solasean, ahozko tradizioaren bilduma» liburu eta DVDaren aurkezpenean.

ten liburua eta DVDa. Malerreka eta Bertizaranako hamabortz herrietan egindako 92 elkarrizketa erabili dituz-

te. Informazio horren laburpena ageri da liburuan eta DVDan. Lana egiten lagundu duten guztiak eskertu nahi izan

zizuten bi egileek, bereziki udan hil zen Txema Aldabe euskaltzalea: «Txema izan zen beka honen bultzatzaile



Liburuaren azala.

leotako bat eta beti laguntzeko prest zegoen. Lan hau zati handi batean berea ere bada».

«Malerreka solasean» liburuaren mila ale argitaratu dira eta horietatik 400 Mankomunitatearen esku gelditu dira. Malerrekako salgai dago liburua joan den astetik Donezteben (Miren, Gurutze, Blas eta Ostiz), Sunbillan (Marisol), Ituren eta Eratsungo dendan, Zubietako Errotan eta Santxokoa, Beintzako Ostatuan eta Iturri-Ondo elkarteetan, Narbarteko Esther dendan, Legasako elkarteetan eta Oieregin, Bertizko Partzuergo Turistikoaren bulegoan.

**1951tik lantzeria-etxea**  
*Casa Cambra*

**EDREDOI eta EDREDOI-AZAL NORDIKOETAN  
ESPEZIALIZATUAK**

Tel: 948 230 634 · Tafalla, 13 · IRUÑEA

**edredoi nordikoak**  
**edredoi-azal nordikoak**  
**mantak**  
**mailndireak**  
**Ohe estalkiak**  
**mantelak**  
**albornozak**  
**toailak**  
**kuxinak**

## ITUREN

# Aurtizko San Martin bestak azaroaren 10etik 13ra

Egun haundian herri bazkaria  
bertsolariekin alaitua

## Ortzeguna 10

## Bespera

20:00etan alxuferua, beste hasiera emateko eta gero kalejira bertako tristolarien eskutik.

23:00etan mus txapelketa elkartean. Ondotik trikopotea bertako trikitilarietara.

## Ortzizaldea 11

San Martin  
Eguna

10:00etan argisoinua.

11:00etan Meza Nagusia.

12:00etan Herri Kirolak. Bertako gazteen arteko arteko desafioa.

14:00etan herri-bazkaria. Bertsolariak: Maialen Lujanbio eta Angel Mari Peñagarikano.

Arratsalde eta gauetz JOXE ANGEL akordiolariak alaituko du giroa.

## Larunbetea 12

## Haurren Eguna

10:00etan argisoinua.

11:00etan haur jokuak.

18:00etan bertako gazteboen arteko pilota partiduak.

19:00etan Iturengo dantzariak.

20:00etan Aurtizko trikitilariak.

Gauetz dantzaldia IRATXO taldearekin.

## Igandea 13

10:00etan argisoinua.

11:00etan Meza Nagusia.

12:00etan aizkora apustua. Zonaldeko 4 promesa gaztek beraien erakustaldia eskainiko dute.

Arratsaldean Trikitixa Jaialdia, beste amaiera emateko.



ARGAZKIAK: ANBARRA ETA EDURRE

Tiburtzio Apeztegia eta Abeli Petrirena senar-emazteak omendu zituzten joan den urteko San Martin bestetan, herriarengatik egindako lana eskertuz. Bertze urteetan bezala, trikitixa jaialdiarekin akautuko dira aurtengo bestak ere. Batzuk jotzen eta bertzeak dantzan, izanen da nola gozatu!



**M INDEGIA**  
ZURGINDEGIA

Teilatuko zurak  
Etxe zaharren moldaketak  
Etxe berriak  
Eskailerak  
Armaru enpotratuak  
Ateak - Lehiokak  
Sukalde mobileak

948 451 906 • 689 531 012

**AURTIZ**

**AURTITZKO OSTATUA**

Aurtitz Auzoa, ITUREN - Nafarroa - Tel.: 948 45 16 53

**LEBIZAK**

948 63 1076 • BERA

**MENDI**  
ostatua

Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO



## SUNBILLA

# Ulibeltzak elkarteak ateraldi berriak antolatu nahi ditu

Abesbatza edo dantza latinoen ikastaroan parte hartu nahi dutenek tenorez dabilta oraindik

J. O.

Datorren urtarrila eta otsailerako ateraldi berriak antolatu nahi ditu Ulibeltzak elkarteak: eskiztera, sagardotegira, bodega bat ikusi eta bertan bazkaldu, eta kostaldara egun pasa. Horretarako datozen egunetan zerrendak jarriko dituzte herriko tabernetan. Nahi duen guztiak edozein ateralditan eman dezake izena, ez da elkarteke bazkide izan beharrik. Izena ematen duten jende kopuruaren arabera erabakiko dira ateraldien datak eta prezioak.

Bestalde, Ulibeltzak mendi taldeak, urtean zehar eguraldi txarra-

rengatik suspenditutako lau ateraldiak datozen larunbatetan egingen ditu: urriaren 29an Harrikulunkara joan ziren mendizaleak, abenduaren 6an Gorbeara joan diren abenduaren 8an Balerdira eta abenduaren 24an Saioara.

### Dantza latinoen ikastaroan 23 lagun hasi dira

Dantza latinoen ikastaroa abiatua da dagoeneko. 23 lagun hasi dira maiatza arte luzatuko den ikastaro honetan. Iruñetik etortzen diren Miguel Angel eta Aitziber dira ikastaro honetako irakasle eta hiru erritmo desberdin ira-



ARGAZKIA: EDURNE ZURBIETA

### 1,400 kiloko onddoa hartu du Lorenzo Petrirenak Mendaurren

Onddo sasoiak pixkanaka itzaltzen doa, baina tar-teka-marteka oraindik ale ederrak ikusten dira bazterretan eta tipli-itapako orri hauetan argitara eman. Onddo eder horien artean sartu behar da, dudarik gabe Lorenzo Petrarena sunbildarrak urriaren 16an bildutakoa. Mendaurren aldean hartu omen zuen eta 1,400 kilo eman zuen pisuan. Otordu ederra egin izan zuen, dudarik gabe!

katsiko dituzte: merenge, batxata eta salsa. Astelehen gauetan biltzen dira bederatziti dietatik hamaikak arte. Oraindik ere izena eman nahi duenak Amaia Apezteari erran beharko dio edo entsaioa dutenean frontoira azaldu.

### Herriko Abesbatza

Herriko abesbatza-ren entsaioak larunbat goizeko 11etan egingen dira. Izena eman nahi duenak edoizen larunbat goizean herriko elizara joan daiteke lehen aipatutako orduan.

## BERTIZ

# Natur Parketik Astitzera egun pasako ateraldia

Bertiz Jaurerriko Natur Parketik Astitzera ingurura ateraldia antolatu da azaroaren 22rako. Autobusa 9:00etan aterako da Elizondotik eta 9:15etan Doneztebetik. Orduete beranduago Astitzera ailegatuko da. Kafea hartu ondok, bisitarien zatitatu diren Astizko lezeak bisitatuko dira. 13:30etan Astizko aterpean bazkaldu eta arratsaldean Eltson dagoen Ezkurdi erlezaintza museo-etxea bisitatuko da. 18:30etan abiatuko da autobusa bueltan Doneztebe eta Elizondora. Izen ematea azaroaren 13a baino lehen egin behar da Natur Parkean, 948 592421 telefonora deituz. Bisitaren prezioa 9 eurokoa da eta autobusa eta sarrerak barne daude. Bazkaria aparte ordainduko da eta ordainketa bankuaren bitartez egin.

## ARTEKARI TALDEA

### ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontralutarako laguntzak
- Enpresa berriz egindak sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Enrenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarietasun planak eta aurrekontuak

LESAKA: Bimio, 71-behe  
Tel: 948 637 050  
Faxo: 948 637 404

BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxo: 948 133 713



Erreserbak eta informazioa:  
650 634434

31791 - BILBILIA (Nafarroa)  
Tel./Fax: 948 450 540  
www.ariztigan.com  
ariztigan@amaes.com

- Eguneko menua, plater konbinatuak eta bokadilloak astez.
- Asteburuetan karta ere.
- Lehen jaunartzeak, bataioak, despedidak... ospatzen dira.
- Haurrekin etortzeko toki paregabekoa

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

## GOIZUETA

# Azaroko lau asteburuetan izanen da non gozatu

Truk txapelketatik feriara, saltsa ikastarotik eta kantalditik igaroz

Esteban AROTZENA

Umore Onaren eskutik elkarteetan bertan larunbat honetan jokatu den truk txapelketa haundiak irekiko du azarorako prestatu den emanaldi zerrenda. 17:00etan dute hitzordua truk-zaleek, eta 10 euroko inskripzioak jokoan dauden bi sari ederraren lehian sartzeko eskubidea emanen die apuntatutako bikoteei. Txapelkunek asteburu bat igaroko dute nekazaritza turismoko etxe batean, eta finalistek berriaz, Fagollaga jatetxean afalduko dute. Egun eta ordu berean, ume-

entzat ere antolatu dute dibertsioa Goxaliko begiraleek. Jokoak egingo dira plazan, eta ondotik txokolatadara gonbidatu ditu Udalak partehartzaile guztiak.

Azaroaren 12rako saltsa ikastaroa antolatu da. Iaz funkyrena egin eta 30 emakumek parte hartu zuten, aurten antzeko zerbitua egitea gogoratu zaie kultur taldekoiei. 16:30etan hasiko da Ganbara aretoan bi ordu inguru iraungo duen emanaldi hau. Hilaren 18an, berriaz, musikak hartuko du «Azaro Kulturalaren» protagonismoa, Nerea Erbi-

ti, Nerea Urbizu eta Iñigo Agirre musikari eta abeslariak izanen baitira Ganbaran 19:00etatik aurrera. Azken hau herriko musika eskolako kitarra irakaslea da.

Azkeneko larunbatean, 26an, feriaren bigarren edizioa ospatuko da, baina honen berri zehatza eta zabala hurrengo alean emanen dugu.

## Goxali

Urriaren 14an ospatu zuten Goxalik ikasturte haserako festa. Aurten go aldaketak iragarri dituzte arduradunek. Alde batetik, DBH-4 arte-



Argazkia: MARIAN APEZETXEA

Gazte Asanbladak urriaren 22an antolatutako gaztain festan gainezka bete zen Umore Ona elkarte.



Argazkia: Iñigo ZUBIRI

Urriaren 14an ospatu zuten Goxalik ikasturte haserako festa.

ko neska mutikoez izanen dute aurten liburutegira joateko aukera, eta bestetik, iaz ez be-

zala, ostiraletan ere tailerrak izanen dira adin guztietako haur eta gazteentzat.

## ARESO

# DV txapelketako final laurdenetan daude Olazabal eta Jauregi

Ehiztariak ez daude gustora aurten

Juana Mari SAIZAR

Olazabal eta Jauregi final laurdenetako txartela lortu zuten DV txapelketan 22-15 irabazita partidua. Bi pilotariak lan gogorra egin zuten baina aipatzekoa Olazabalek egindako jokoak, ezker gantxoarekin tanto ikusgarriak egin zituen eta sakez seiltanto egin zizkion Lo-

pezari. Olazabalek aurre kontratua sinatuta dauka Asperekin eta horrela jarraituz gero pentsatzekoa da laister ikusiko dugula profesionalen artean.

## Ehiztariak kexu

Mendiak ehiztariz josiak daude eta aurten goan ez oso gustora ehi- zarekin. Usoak pasa bai,



Argazkia: Juana Mari

Aurtengo ikasturteko bost haur berriak: Uxue, Aimar, Ruben, Lorea eta Unai. Gelan Aitor eta Beñatekin batera daude.

baina oso altu eta ezberdin. Hori gubxi balitz, foruzainak han hemenka dabilta eta multa dextente jartzen ari dira.

## Jolastokia apaintzen

Babesturiko giza programako langileak herriko jolastokia kolorez

pintatzen ari dira eta hori bukatzean, Herriko Etxeko teilatuko egurra tratatu eta pintatzeko asmoa dute.



doneztebe<sup>ko</sup>

feriak

azaroaren 18an





## ARozENA OSTATUA

Gosariak eta bazkariak

Eguzki Eder, 3 DONEZTEBE Tfnoa: 948450443



ALBAITERITZA  
ZENTRU TEKNIKOA

Juan Ramon Ostiz

Karrika Nagusia 1, Tfnoa: 948 450 591 - DONEZTEBE



MAILPOSTA

IMPRESIMATEGIA, DISEINU GRAFIKOA  
INTERNET ETA BUDORRATER  
LANAK

Leitzako bidea, 9 Doneztebe  
Tel 686 74 77 13 // 609 40 42 29

**Amaya**  
LURRINDEGIA  
APAINDEGIA  
Auzua 21g - DONEZTEBE  
Tfnoa: 948 450 185

- Solarium bertikat
- Bibidenda eta osagarriak
- Estetik
- Mesoterapia tratamendua medikuarekin
- Zehulisa - Mehartzea - Bigantatuna - Zirkulazioa
- Auzpegiko tratamendu pertsonalizatuak

INDIES SIXTY

## Egitaraua

San Martin ondoko asteko ortzirala, aurten azaroaren 18a, egun seinatua izanen da Doneztebe eta Malerrekako bizilaguentzat bereziki.

Feria eguna ailegatu da. Egitarauan ez da aldaketa haundirik izanen: goizean, beti bezala, aziendak ikusi eta ferianteen postuen artean harat-honat ibiltzeko eta erosteko modua izanen da.

Eguerdian, Xebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariek alaituko dute bazkaldu aitzineko giroa Merkaturuko Plazan. Gai librean arituko dira.

Bazkaldu ondotik herri kirol saioa. Nafarroako aizkolari txapelketa nagusiaren finala jokatu da udal pilotalekuan 17:30etatik aitzinera. Floren Nazabal, Mikel Mindegia, Juan Jose Lopez, Jose Juan Barberena eta Antonio Senosiain arituko dira lehian.



**Jende aunitz hurbilduko da Doneztebera aziendak eta postuak ikustera.**



# KONTXA

## Gasolindegia

- ✓ Deitu eta egun berean edo biharamunean etxera eramanen dugu
- ✓ Garraio-enpresetan depositoak jartzen ditugu

# KONTXA

## kafetegia

- ✓ Bokadiloak eta Platerak
- ✓ Ogi egin berria



*Ongi pasa feriak!*

Tel: 948 450 272 · Faxa: 948 450 810 · DONEZTEBE

## EDERKI

PEUGEOT AGENTE OFIZIALA



PEUGEOT



## EDER

CITROEN AGENTE OFIZIALA



Grua zerbitzua 24 ordutan  
Mekanika • Elektrizitatea • Txapa • Pintura  
Hidraulikan espezialistak  
Leitza errep. • DONEZTEBE • 948 450 525



# doneztebe ko *feriak*



**BIXEN** ostatua

Beharrik eta satsa suzak

948 450 383 - DONEZTEBE

## Mendiburu

Aziendak

azienda  
tratantea



ONEI PASA FERIAKI

Tel. 948 460 084 - DONEZTEBE



## IBARBURU

ERRETEGIA

DONEZTEBEO FERIETARAKO  
MENU BEREKIA

Erreserbak..... 948 456 161

N-121-A karretara, 49. kma - Ibarburu Baserria - DONEZTEBE



**KONGELATUAK:**

Albondigak  
Urdelazpiko,  
oilasko, piper  
eta arrautze kroketak



## Esarte

AINZINETIK PRESTATUTAKO  
JANARIAK

Orain bera, lesaka, Etxalar eta Donezteboko  
Janari-kendetan

Jaime Urrutia 35 - ☎ 948 58 01 28  
ELIZONDO



Prezioek beheiti eta gastuak goi

## Behitegian, garbitasunak ematen du lanik gehiena

### Xanti Jorajuria

**Epeloa Baserria  
Donamaria**

#### Noiz egin zenuten behi granja?

Orain dela 25 urte gutti gora behera. Hori baino lehen sotoan edukitzen genituen, baina azkenean granja libre batera pasa genituen.

#### Denetara zenbat behi?

Behiak eta migattuak denak kontatuta 130. Denak esnetakoak.

#### Goizean jeiki eta arratsa bitarte, nolako izaten da granjako lanen martxa?

Eguneroko lan fijoak; behiak jeitzi, bazkatu eta garbitasuna goizero eta gauero. Eta hortik aparte, garbitasuneko gauzak prestatu, piza eraman, ongarrria bota.... Lan gehien ematen duena horixe da, garbitasuna.

#### Jatekoa nola ematen diozue? Kanpoan edo granjan?

Granjan bertan, mezkloran bazka sartu (luzerna, siloko artoa, grasa silua, pentsua) eta horiek denak nahastuz prestatzen da.



iti

### Afizio edo ofizio moduan hartzen duzu?

Obligazio moduan. Orain dela 25 urte sartu ginen honetan eta segitu beharko dugu aitzinera.

### Nola ikusten duzu abeltzaintza eta nekazaritzaren egoera?

Hagitz gaizki, gero eta traba gehiago jartzen dituzte. Prezioek beheiti doaz eta gastuak goiti, eta gainera, gero eta irabazi guttiago uzten du esne litroak.

### Orain momentu honetan 25 urte gibelera eginen bazenu, behitegi berria eginen zenuten?

Seguraski ez, orain dagoen egoera ikusita ez dut uste.

### Ferietan urtetik urtera azienta guttiago ikusten da, eta behiak, oraindik guttiago. Zer gatik?

Behi gutti ikusten dira eta ikusten diren bakanak behi-gorriak. Ez da arraroa. Gero eta behi guttiago daude eta gaur egun ferietan ez da erosten. Normalena ttikitatik etxean haztea izaten da.



**SALDIAS HARATEGIA**  
 Bertako haragi freskuekian espezializatutak • Etxeko bistara  
 Karrika Nagusia, 21 - ☎ 948 450191 • DONEZTEBE

**P.J.M**  
**Pedro J. Martin**  
 Azienda trattularia  
*kurbidu azienda feria ikustera*  
**948 450 042**  
 Martiñenea etxea - DONEZTEBE

**ALTXUNEA ERRETEGIA**  
 Ongi pasa ferietak  
 ITIREN  
 Tfonia: 948 450 410

**APARAN, S.A.**  
 BRIKOLAIA eta ZURAK



Tel: 948 456 080  
 Fax: 948 450 334  
 DONEZTEBE

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

# doneztebeke ferriak



## Mendaur Motor



Leitzako erreplida  
Tfnoa: 948 450 333  
DONEZTEBE

## s@re



### INFORMATIKA AKADEMIA ZIBERGELA

- Kurtsoak:  
Ofimatika, Mekanografia, internet...
- Jokuak sarean
- Inprimatzeko aukera
- Web orrialdeak egiten dira enkarguz
- Bestelako lanak enkarguz...

Ongi pasa ferriak

Leitzako errep. 29 - Tel: 948 450 755 - DONEZTEBE

**TXANPA**  
SERIGRAFIA

## Estanpazioak

Artsari

kua errentzat  
enpresentzat  
kolaborentzat

948 660784349  
Josepe eta  
Doneztebe sarean  
txanpadoneztebe@yahoo.es

**FRINTZE**

**OSTATUA**

### Aurtengo ferriak umore ederrean pasatu

Merkatarien karrika 28  
948 451826  
DONEZTEBE

**MARIA**  
ELAFANDEGA

- Makila
- Pedikura
- Depilazio elektriko
- Auzpegiko tratamenduak
- Manikura • Spray Sol

948 450 922  
Doneztebe

**Marisara**  
LEIZORNA

DONEZTEBE - Tfnoa: 948 450 112  
ELIZONDO - Tfnoa: 948 581 301





# SANTESTEBAN

## Tailerrak



Coupe

Mégane

Mégane Sedan

Laguna



Kangoo

Modus

Scénic

KOTXE IA BERRIETAN SEKULAKO ESKAINTZA: (Clio, Modus, Espace...)  
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURAKO LANAK EGITEN DITUGU.  
ESKATU AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE

Leitzako bidea · DONEZTEBE · Tel: 948 450 282 · 948 450 597

# AVIA

# E.S. DONEZTEBE

Gasola etxera eramaten dizu.

Zure eskariak egiteko telefonoa: 948 450 282



Kotxeak kanpotik eta barrenetik garbitzeko makinak

Leitzako bidea, 49 · DONEZTEBE  
Tel: 948 451 679 · Faxe: 948 450 857

## LEITZA

# Patxi Arrazolako auzokideek obrak ordaintzeko zerga berezia dute

Haur parkea moldatzeko 70.000 euroko aurrekontua dago

ttipi-Itapa

Patxi Arrazola auzoan saneamendu eta zolaberritze lanean ari dira irailaz gerotik. Ur sarearen lanak bukatuta, orain zolaberritzen ari dira. Udala, auzo horretan etxebizitza, ganbara edo bajearen baten jabeek zerga berezia kobratzen ari da, «lanaren kostuaren zati bat auzokideek ordaintzeko». Zehazki, jabeek egiazko kostuaren %12a ordainduko dute, «lanen eragina jasotzen duten eremuen dituzten ondasunentzat kategoria ezarritako balioaren arabera».

Lanen aurrekontu osoa 978.005,10 eurokoa da. Nafarroako Gobernuko dirulaguntza emanen duenez, saneamendu sarean 292.366,21 euro ordainduko ditu herriak eta zolaberritze lanetan 145.335,23 euro. Bi kopuru hauen %12a da auzotarrek ordainduko dutena, 52.524,18 euro guzira. Dena den, ordain-



## Manuel Lasarte: bizitza eta sorkuntza

Arturokoka



### Manuel Lasarte bertsolariari buruzko erakusketa Arantzazun

1927an Leitzako Franki baserrian jaio zen Manuel Lasarte bertsolariari buruzko erakusketa zabalik dago abenduaren 11 bitarte Arantzazuko Santutegian, Bitoriano Gandiaga Topagunean. «Manuel Lasarte. Bizitza eta sorkuntza» izenburupean zabalik egonen da asteburu eta jai egunetan, 11:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik aurrera. Lasarte bertsolaria eta pertsona ezagutzeko interesgarria.

keta bi zatitan egingen da. Lehendabiziko zatia urriaren 31 baino lehen ordaindu behar zen eta bigarrena lanak bukatutakoan egingen da.

### Haur parkea moldatuko da

Udalak haur parkearen moldaketa egiteko lehiaketa prestatu du. Hasierako aurrekontua

70.000 eurokoa da eta lana hamar astetan egin beharko du hartzen duenak. Proposamenak urriaren 31ko eguerdia baino lehen aurkeztu behar ziren udal erregistroan.

### Maider Goñi euskara teknikaria

Etxarri Aranazko Mai-

der Goñi Errazkin da Leitzaldeko euskara teknikari berria. Dabid Anaut eszedentzian dagoen bitartean, hurrengo urte eta erdian, haren ordezkia egingen du Arano, Areso, Goizueta eta Leitza. Ikasketaz soziologoa bada ere, irakaskuntza eta euskara arloan aritu da lanean Maider Goñi; irakasle

## ARANO

# Erbizina eta Tintapoloko pinudia saldu da

Kontxi KLABER

Urriaren 19an elkartu ziren Altsasun 25 herrietako udal ordezkariak. Herri bakoitzak bere mendiak oihan aprobetxamenduak enkantean atera zituen. Arano Erbizina eta Tintapoloko pinudiak aurkeztu zituen eta %20ko beherapenarekin erosi zituen Durangoko Papelera Central Forestalek. Guzira 140.544 euro ordainduko ditu. Gehien bat pinudia da nahiz eta pago eta akazia gubi batzuk ere badioren eta ateratzeko urte beteko epea izango dute entrega egin ondotik hasita.

modura, DBH, Lehen Hezkuntza eta batez ere Haur Hezkuntza aritu da eta azken bost urteotan, Sakanako Mankomunitatean egin du lan. Orain, gogotsu ekin dio Leitzaldeko ardurari. Irailaren erdialdean hasi zen eta pixkanaka lan berrira ongi egokitzen ari omen da.

## MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

### ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

Diabeto • Aina • Zizareak • Larri azaleko alergia  
Bunko mina • Oinenezko izarria • Prostatita, etab...

### IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alferria
- Estrabismoa
- Begi lasoak-kataraktak

### GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artrita, erreuma
- Artrosia, lumbalgia
- Bihurdurak, etab

### KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara, Arratsaldetaz 2-7etara, Ordua eskatu

943 62 30 55 San Marcial, 7-4 IRUN

luis cestau baraibar	arkitekto teknikoa	leitza 607204485	lucésba @ msn.com
----------------------------	-----------------------	---------------------	-------------------------

**Ark<sub>b</sub>** arkitektura bulegoa

Cella Lana Ranz  
Huarle Gotzai 7 - 31860 Leitza - 645008478 tel

Eraikuntza Hirigintza Udal-ohikularitza

**BAZTAN**

# Asier Larretxea da «Bai Euskarari» Akordioko teknikaria

Eskuararen erabilera sustatzea eta normalizatzea du helburu

ttipi-ttapa

1998an Euskararen Gizarte Erakundeak Euskal Herri osoan "Bai Euskarari" kanpaina egin ondotik, 2003. urtean, Baztango udalak atxikimendua agertu zuen, Baztanen abian jartzeko kanpaina. Eskuararen erabilera eta normalizazioa sustatzea du helburu "Bai Euskarari" akordioak, eta horretan sartzen da "Bai Euskarari Ziurtagiria". Honen dinamizatzaile-teknikari da Asier Larretxea arraiioztarra. «Bai Euskarari Ziurtagiriaren bidez enpresek, saltokiak eta erakundeak eskuararekiko atxikimendua, era bateko edo berteko konpromisoa adierazten diote gizarteari». Larretxearen zeregina "Bai Euskarari Ziurtagiria" eragile gehiagotarat zabaltzea da eskuararen erabilpena bermatzeko eta



Asier Larretxea

bezeroel, heritarrei ikus-tarazteko eskuaraz lasai-lasai hartu emanak egin ditzaketela. «Etor-kizunera begiratzea da, beti ere, hizkuntz-esku-bideak eta kalitatea bermatze aldera. Honetaz gain, ziurtagiria erdietsi duten eta konpromiso-aren bai hartu duten eragileen jarraipena egiten dut».

Asier Larretxearekin egoteko udaletxean 948580006 telefonoan edo baztanbai@euskal-herria.org posta elektronikora idatzi behar da.



Argazkiak: ONDOKOL

**Maño Eguna ospatu zen Elizondon urriaren 1ean**  
Elizondoko Gaztetxea eta Mosisos por l'aragones kolektiboaren artean antolatua zuten, eta eguna ospatzera, gazte betetako autobusa etorri zen Zaragozatik. Aragoiko eta Baztango gaitariekin poteoa egin zuten Elizondon, eta bazkarian "rancho aragones" Aragoiko plater tipikoa dastatu zuten giro ezin hobean. Arratsalde partean pilota partida eta herri kirolak eta gauean kontzertu paregabea gaztetxean: Shiva, Kaskezur eta Skabeche Riber Band taldeekin, azken hau Zaragozako. Jende aunitz bildu zen bai bazkarian baita kontzertuan ere, argazkietan ikus daitekeen bezalaxe. Antolatzaileek adierazi dutenez, «giro ederrean joan zen eguna nahiz eta Guardia Zibilak itzuli ugari egin zituen eta hurrengo egunean akanpatuta zeuden mañoak erregistratu eta identifikatu».

**ELIZONDON EREKI DUGUI**

# abartan

CERRAMIENTOS • ITXITURAK

**PVC eta ALUMINIOA**

- atea • leihoak • kontraleihoak
- manparak
- zeramikak (fabrikako prezioetan)
- kontsumo gutxoko kalefakzio elektrikoak

Santiago 56, bajo • 31700 ELIZONDO  
Tel. 948 561 152 • 667 264 025 • 696 970 725  
mixxone2terra.es

# Maderas GOMEN

- Era guzietako atea, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tablerokoak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Industrialdea - Tel: 948 580 645 - IRURITA

# MIRENTXU

**HAUR ETA GAZTETXOEN MODA**  
**0 - 16 urtekoentzat**

BOBOLI

MARKARIK ONENAK

BOBOLI, SCHUSS, PAZ RODRIGUEZ, CHUPA CHUPS, AKR...

30 MARKA BAINO GEHIAGO, PREZIO GUZTIETAKOAK

SEASKAK 145 €tik hasita

BERTAN ESKUZ EGINDAKO SOINEKOAK



PARKAK.....	20	€tik hasita
GALTZAK.....	14	€tik hasita
KAMISETAK.....	7	€tik hasita
TXALEKOAK.....	18	€tik hasita
SOINEKOAK.....	16	€tik hasita
JERTSEAK.....	14	€tik hasita

## ETORRI EZAGUTZERA

Serapio Mugika 15  
943 618 033 • IRUN  
Ordizia kalea 5  
943 881 278 • ORDIZIA

KUPOI HAU ERAKUSTERAKOAN  
**% 5**eko  
Deskontua

**BAZTAN**

# Gamioxarreko dolarea lanean jarri dute seigarren Kirikoketa Egunean

1.500 kilo sagar jo zuten Jo ala Jo taldekoek

**ttipi-ttapa**

Baztango Jo ala Jo taldeak seigarren aldiz antolatu zuen Kirikoketa Besta. Aurtengoa urriaren 22an egin zen Arizkun eta egun osoan XVII. mendeko Gamioxarreko dolarea lanean ikusteko aukera izan zen.

Kirikoketa Eguneko ospakizunak goizean hasi ziren txistulari eta gaitariak eskaini zituzten argi soinuekin. Ordu berean sagar jotzeari ekin zitzaion kirikoketa erritmoarekin. Jo ala Jo taldekoek 1.500 kilo sagar erosi zituzten Baxenafarroako Donaxti-Ibarreko Eztigar kooperatiban. Gero, sagar patsa estutu zuten Gamioxarreko dolarean eta sagar zukua kupelelari. Zukua dastatzeko aukera ere izan zuten Gamioxarrera hurbildu zirenek. Tartean, urtetan beraien etxetan sagardoa egin dutenak gonbidatu zituzten antolatzaileek. Konparaziora, Berako An-



Patxi Larralde, Oianko Garde, Xabier Torres eta Amagoia Cabodevilla sagarra jotzen kirikoketa erritmoan. Beheitian, Antonio Irtzoki beratarra eta Fermin Otxandorena lekaroztarra gazteen lana ikusten.

tonio Irtzoki eta Lekarozko Fermin Otxandorena. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta Ezkio-Itxasoko Igartubeiti baserria zaharberitzean aholkulari izandako Alberto Santana ere Gamioxarrean zen eta dolarea egoki montatu eta lanean jaritzen lagundu zuen.

Eguerdian kirikoketa jo zen larrainean, lanak

akitu zirela ospatzeko. Goiz osoan pintxoak eta Nafarroako sagardogileen sagardoak dastatzeko aukera ere izan zen.

Bazkalondoan txalparta jaialdia egin zen eta Meatzaldeko Arrigorria dantza taldea eta dantza herrikoiak egin ziren, mutildantzak, gaita, muxikoak eta bertzelakoak.

**FLASH**

**Usain toxikoak Oronoz-Mugairiko eskolan**

Ornoz-Mugairiko eskolako Guraso Elkarteak gimnasiotik ateratzen diren usain txarrei buruzko kezka agertu du. Abuztuaren 15ean sute batek erre zuen gimnasialekua eta oraindik ez da garbitu. Ikastetxeko irakasle zentroak ere bat egin du gurasoekin eta Baztango Udaliak, toxizitateari eta osasunari buruzko azterketa txostena egitea eskatu du, plastikoak erre zirelako.

**Klima aldaketa aztertzeko**

Urriaren 20 eta 21ean, eguraldiaren aldaketa aztertzeko seminarioa egin zen Lekarozko Aterpean. Espainiako 50 espezialista eta teknikari aritu ziren gaia aztertzen.



Okindegia
Jatetxea

# Uxoa

**OKINDEGIAN**

- Ogi artisauro, egunekoak eta txupata
- JATETXEAN**
- Menua eta korta (asteburuetan)
- Espzialitate parrilan erretako jakietan

*Enkargatu gero, bidaltzen dugula oso irrat, joro-giroa!*

Orduki Industrialdea - Tfnoa: 948 45 34 03 - 31713 ARIZKUN

**ANTXITONEA**  
Trinketea

**Jatetxea - Ostaturu Hotela - Trinketea**

*Menu Borozik*

Tel: 948 581 807  
948 581 853

antxitonea@terra.es - Braulio Iriarte karrika - ELIZONDO

## LANA

### Ostatu ematen eta ostalaritzan trebatzeko ikastaroa antolatu da

Baztan, Bera, Lesaka eta Elgorriagako Udalek bultzatua



ttipi-ttapa

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, Cederna-Garalur elkartearen lan-kidetzarekin, eta Baztan, Bera, Lesaka eta Elgorriagako Udalen finantzaketarekin, Enplegu Tailerra antolatu du eskualderako. Inguuru honetan aitzindaria den esperientziak, hamabost laguni ostatu emate eta ostalaritza espezialitateetan prestakuntza osoa eta profesionala hartzeko aukera ematen die. Enplegu tailerra 25 urtetik goitiko langabetuei zuzendua dago. Irakasleak, irakatsiko diren arloetan esperientzia duten profesionalak izanen dira, eta ahal bada eskualdekoak bertakoak.

Tailerraren kostu osoa 150.554,34 eurokoa da. Kopuru horri aurre egiteko 132.366,69 euro Nafarroako Enplegu Zerbitzuak paratuko du. Maribel Garcia Malo, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren zuzendari gerentearen ustez, «ostalaritza espezialitatea Lizarran egindako Enplegu Tailer batekin esperimentatu genuen joan den urteko urrian. Eraitza, lana aurkitzeari dagokionez, oso ona izan zen».

Tailerra bertze eskualdeetara zabaltzearekin Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, Baztan-Bidasoaren garapen sozioekonomikoa bultzatzeaz gain, Nafarroan Enplegu Tailerren programa finkatzen da.

# MUS TXAPELKETA MON OSTATUA Urdazubi



#### AZAROAREN 12an

- 1. bikoteak: 300€ FINALA
- 2. bikoteak: 150€ FINALA
- 3. bikoteak: 2 urdaiazpiko
- 4. bikoteak: 2 bildots

#### AZAROAREN 19an

- 1. bikoteak: 300€ FINALA
- 2. bikoteak: 150€ FINALA
- 3. bikoteak: 80 l orrogai (ozantza)
- 4. bikoteak: 2 txorizo + 2 gasna

#### AZAROAREN 26an

- 1. bikoteak: 300€ FINALA
- 2. bikoteak: 150€ FINALA
- 3. bikoteak: 2 urdaiazpiko
- 4. bikoteak: 2 bildots

#### ABENDUAREN 3an

- 1. bikoteak: 300€ FINALA
- 2. bikoteak: 150€ FINALA
- 3. bikoteak: 4 loteria dozimo
- 4. bikoteak: 2 konfit pote

## FINALA ABENDUAREN 17an

- 1. bikoteak: **BIDAIA DOMINIKAR ERREPUBLIKARA (10 egun)**
- 2. bikoteak: **SALOURA (8 egun)**
- 3. bikoteak: **EGUBERRITAKO 2 SASKI**
- 4. bikoteak: **2 URDAIAZPIKO**
- 5. bikoteak: **4 BOTILA RICARD**
- 6. bikoteak: **4 BOTILA J-B**
- 7. bikoteak: **4 BOTILA MARTINI**
- 8. bikoteak: **4 BOTILA ARNO**



Partehartzeak: **25€ bikoteak gau bakoitzean**

Ordua: **21:30etan**

Tfnoa: **609 425 719**

## SENPERE

# Ehiztariak kexu daude hegaztien gripea eta gobernuak hartu dituen neurriengatik

Lehengo argazki xaharren biltzea egiten ari da erakusketa bat apailatzeko

Franck DOLOSOR

Hegaztien gripea dela eta, solas anitz egiten da horri buruz egun hauetan. Orlaskoen salteak %20 apaldu dira, jende ainitz dabil farmazietan informazio eske eta jatetxe batzuetan ez du gehiago nehorik pintarik jan nahi. Ehizan ezin dira gehiago bizirik diren xoriak baliatu abereak hurbilartzeko. Neurri horrek ehiztarien haserrea piztu du. Talde hunen ustez, ehiza segitzea gauza ona zen hurbiletik ikusten ahal baitzen egoera nola alda zitekeen. Prekautzioengatik termometra fidagarria hautsi duela gobernuak uste dute ehiztariak.

## Zirikolatz lanean

Herriko elkarte gehientsuenek bezala, Zirikolatz euskal dantza taldea lanean hasi da berriz.

Neskak bartz taldeetan banatu dituzte aurtien. Mutikoen ikastaldiak asteazkenetan egi-



Boucon-Aranburu eta Benoist familiek sorpresa ezin atseginagoa izan dute berriki. Eskualdeko banketxe batek antolatu zuen lehiaketa baten sari nagusiak eskuratu dituzte. Mila eta bartz ehun euroko sariak ukan dituzte.

ten dira. Helduak bi taldeetan banatuko dira, alde batetik berriak eta bertetik beren maila hobetu nahi dutenak. Laster, Alemania iparraldeko dantza talde bat etorriko da Senpererat. Gan den uztaillean senperetarrak gan ziren Alemaniara nazioarteko dantza jaialdian parte hartzerat.

## Argazki xaharrak

Atzoko Senpere erakusketa prestatzen ari da herriko kultura eta ondare taldea. Herriko argazki xaharrak dituzten guzkiek lagundu dezakete erakusketa hau atzerabegirada hori ahal bezain aberatsa izan dadin. Xehetasunak Herriko Etxean galdetu behar dira.



**Landibar** EGUNERO IREKIA  
ZENTRO KOMERTZIALA

VENTA PELO RESERVIRANI

300m pertune markarik ezagunenekin, usain-onak, kosmetikoak...

Euskal Herriko preziorik hoberenak

Tel. (0034) 948 599 400 · URDAZUBI

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

CAFÉ DE AARAS

MAIXAN ETA VÉRONIQUE SARA • TEL. 0559542519

MENDIALDE  
Jatetxea

AMAIUR • 948 453 060

Carlos Juruikoetxea Etxenike

abokaturia

948 581 468  
948 500 433  
Fiantzako etorb. 12  
Ameztezte 3B  
ELBETE



**SARA**

## Sarako Gaztetxearen hamabosgarren urteurrena ospatuko da azaroaren 22an

Trastiak taldeak bere lehen kontzertua emanen du, hasi eta hamahiru urte beranduago

Laetitia eta Sandrine

Sarako Gaztetxeak 15 urte bete ditu aurten. Horren aitzakian, lehen urteetako kideak eta gaurkoak, denak batekin, ospakizun eguna antolatu dute azaroaren 12an. Usaia den bezala, eguna zintzur bustitzearekin hasiko dute. Gomitatuak izan diren kide guztiak Gaztetxean elkartuko dira egunari hasiera emateko. Mukaki Sound System, eskualdeko musikariz osatutako taldeak bazterrak alaituko ditu. Ondotik, oturuntza izanen dute Omordia gelan. Bazkal ondoan, berriz, gazteek egindako antzerkia

emanen dute. Azken 15 urte horietan gaztetxeak izan dituen gorabeherak umorearekin eskainiko dituzte. Arratsuan bigarren zintzur bustitzea izanen da. Hontan berriz, gaztetxea lagundu duten lagun guztiak gomitatuak dira. Honekin batean luntxa zerbitzatua izanen da.

**GAZTETXETIK ATERA DIREN MUSIKA TALDEEN KONTZERTUA**

Gauean, urte guzi horietan gaztetxetik atera diren musika taldeak arituko dira. Trastiak taldeak, hasi eta hamahiru urte berantago, bere lehen kontzertua eskai-



BKBO taldeak kontzertua eskainiko du, Trastiak eta Ingumarekin batera.

niko du. Adi egon, baliteke bakarria izatea eta! Ondotik, eskualdean

ezagunagoak diren Inguma eta BKBO arituko dira. Oroitzapenen

betetako eguna izanen da azaroaren 22koa, dukarrik gabe.

**ARKUPEAK**

## Urte bukaerako besta azaroaren 22an egingen da Gorraizen

Hildako bazkideak omenduko dira Doneztebeko mezan, tartean Jose Javier Apezetxea goizuetarra

Laetitia eta Sandrine

Arkupeak erretiratuen elkarteak 2005 urtea agurtzeko eta joan den urteko abenduaren 1etik aurtengo azaroaren 20ra hildako bazkideak omentzeko eguna antolatu du azaroaren 22an. Omendutako arteen, elkartean hainbat lan egindako eta aurten hil den Jose Ja-

vier Apezetxea "JJ" goizuetarra dago.

Egun honetan parte hartzeko izen ematea zabalik dago urriaren 28tik azaroaren 8ra eta Arkupeak elkartetik jakinarazi dutenez, epekanpo ez da inor harturiko. Aurtengo egitarauan izan diren aldaketak medio, bazkide bakoitzak 30 euro ordaindu be-

harko ditu. Herrietatik irteera ordua, izena eman ondotik jakinaraziko da. 10:30etan meza izanen da Doneztebeko elizan eta hil diren bazkideen aldeko otoitza egingen da. Eguerdialdera berriz ere autobuaka hartu eta Gorraizera joanen dira bazkaltzera. Honako menua izanen dute Gazteluan: terrina



Hildako bazkideen aldeko meza izanen dute goizean Doneztebeko elizan.

eta ogi xigor dastaketa, Gorraizko frijituak, barrazki menestra, txangurro gainerrea, ume-ria entsaladarekin eta etxeko postrea, dena cava, ura, Señorío de Sa-

ria ardoa, kafea eta likoreekin bustia. Bazkalondoan, 16:30etatik 18:15etara dantzaldia izanen da eta 18:30etan abiatuko dira autobusak etxera bueltan.

## ERREPIDEAK

# «N-121A orain!» eskatuz, informazio kanpaina egingen du Eusko Alkartasunak

8.200 hiruorriko banatuko ditu Baztan, Bertizarana, Bortzirriak eta Malerrekan

## ttipi-ttapa

N-121A errepideko obren lehentasuna aldarrikatzeko kanpaina egingen du Eusko Alkartasunak. Horretarako 8.200 hiruorriko argitaratu eta Baztan, Malerreka eta Bortzirietako etxeetan banatuko dira. Honelaxe ezagutzera eman zuten urriaren 24an Beran egindako prentsaurrekoan Maiorga Ramirez Nafarroako EAko presidente eta parlamentariak, Helena Santesteban Berako alkate eta parlamentariak, Jose Mari Gorosterrazu Iturengo alkateak eta Juan Carlos Aiala Lesakako zinegotziak.

EAko ordezkarien ustez, errepide honen egoera txarrak «begibistako arriskuez gain, zonaldearen garapen ekonomikorako oztopoa ere suposatzen du, baldintza txar hauek Bera, Lesaka eta Doneztebeko industria eta komertzio guneetara doan kamiol garraioarentzat bidea



Juan Carlos Aiala, Maiorga Ramirez, Helena Santesteban eta Joxe Mari Gorosterrazu, urriaren 24an Beran egindako prentsaurrekoan.

oztopatu, zaildu eta atzeratu egiten duen neurrian».

N-121A errepidearen inguruan UPNren gestioa «lotsagabea» iruditzen zaio EAri. «Azken astean jakin izan dugu UPN-CDN gobernuak berean jarraitzen duela errepide transpirenari-

koa egiteko ideiarekin, oraindik oso berdea dagoen proiektua eta inbertsio ekonomiko garrantzitsuak behar izan diren dituen, hala nola kontuan hartzeko ingurugiro kostea. Iragarpen berri hau harigarria da, tratatua eginga daukan eta bizilagunen eska-

tzen duten N-121A errepidea atzeratzen den bitartean».

Pazientzia agortu zaiela eta gehiago ezin dutela itxaron azpimarratu ondotik, zonaldeko EAko alkate eta zinegotziek, Baztan, Bertizarana, Doneztebe, Ituren, Sunbilla, Etxalar,

Lesaka eta Berako udal ordezkariak, Nafarroako EAren zuzendaritzarekin batera, informazio kanpaina hau abiatu dute. Obra hauek behar duten lehentasuna ematea eskatuko zaio Nafarroako Gobernuari, «oinarizko eta hain premiazkoa den behar hori erantzuna emateko». Horretarako, hiruorriko bat banatuko du Eusko Alkartasunak eskualdean, UPNk errepide honen inguruan izan duen jarrera eta egin duen gestioa salatuz eta konponketa lehenbailehen egitea eskatuz. «Lanak berehala hasi behar dira, errepide honetan denbora ez ezik biziak ere galdu baitira».

Helena Santesteban Berako alkateak, 2006ko aurrekontuetan lan honetarako diru-saila jartzea eskatu zuen. Santestebanek adierazi zuenez, «UPNri iduritzen zaio Nafarroa bakarrik beraiek daukan lekuetan dagoela».



**ZALDUBI**  
SUKALDEKO MOBLEAK

Martin Lizasoain Adonza

Etxetresnak · Armairuk  
Komunak · Manparak

Tel: 948 580 562 · Faxa: 948 581 859  
Zaldubia Industrialdea · 31730 IRURITA

**ZOANSA** HYUNDAI  
MARKA GUZIEN KONPONKETA SEAT AUDI

Berarta, 2 - Alkaleja Industrialdea - LESAKA (barrena Beratik)  
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

## EZKONTZAK

Miguel Angel Lorente Aranburu eta Maria Jose Agirre Zabala, Gaztelukoak, urriaren 1ean.

Hilario Mutuberria Baleztena eta Aida Amariña Llano, Zubietakoa eta Doneztebekoa, urriaren 13an.

Aitor Erkizia Iratzoki eta Nekane Lasaga Apeztegia, Berakoak, urriaren 8an.

Mikel Otamendi Ezkurdia eta Maria Mercedes Iratzoki Agirre, Betelu eta Berakoa, urriaren 8an.

Iñaki Goia Mitxelena eta Beatriz Garcia Rios, Berakoak, urriaren 15ean.

Angel Maria Loiarde Lujanbio eta Maria Carmen Olano Zabaleta, Leitzakoak, irailaren 3an.

Ismael Urbizu Gurutzaga eta Sara Gartzia Baralbar, Lekunberri eta Leitzakoa, urriaren 1ean.

Francisco Javier Garaikoetxea Irungarai eta Miren Opoka Bikondoa, Erratzu eta Oronoz-Mugainakoa, urriaren 8an.

Juan Bautista Mutuberria Saldias eta Natalia Artamonova, Beintza-Labaien eta Errusiakoa, urriaren 22an.

Iñigo Agirre Mariñelarena eta Amala Arretxea Eizagirre, Gerendiain eta Sunbillakoa, urriaren 22an.



## SORTZEAK

Xuban Erbiti Baleztena, Donamariakoa, irailaren 25ean.

Narrea Viñao Bertiz, Lesakakoa, urriaren 8an.

Mariam El Haou Lhissen, Nartartekoa, urriaren 10ean.

Irati Ponbar Larralde, Berakoa, urriaren 11n.

Jaydi Chasquina Cando Calapi, Leitzakoa, urriaren 8an.

Eneko Diez Zabala, Leitzakoa, urriaren 9an.

June Launagarai Zubieta, Arraiozkua, urriaren 11n.

Mikel Pruaño Gofri, Elizondakoa, urriaren 17an.

Narrea Maisterrena Mendiburu, Elizondakoa, urriaren 17an.

Luna Tovar Barroso, Iturengoa, irailaren 1ean.



## HERIOTZAK

Juan Bautista Larramendi Arburua, Berakoa, urriaren 12an, 88 urte.

Bautista Iturria Aitzuri, Arantzakoa, urriaren 13an, 72 urte.

Julian Lazkano Baralbar, Leitzakoa, urriaren 16an, 75 urte.

Jose Antonio Indaburu Irisarri, Etxalarakoa, urriaren 17an, 77 urte.

Pedro Tomasena Dendarieta, Zugarramurdikoa, urriaren 22an, 88 urte.

Florencio Bidegain Mezkitz, Arizkungoa, urriaren 24an, 73 urte.



### Jose Antonio INDABURU IRISARRI

2005eko urriaren 17an hil zen  
Etxalarren, 77 urte zituela.

*Eskerrik asko atazi.*

*Mundu honetara etorri nintzenean,  
zuk eman zenidan argia.*

*Orain joan zara eta argi horrek  
garekin segituko du betiko.*

**ZURE BESOETAKO ILOBA.**



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerrek S.L.  
Funeraria Baztan

**24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN**

**TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA**

**LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK**

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerrek S.L.  
Funeraria Baztan

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA

## ATLETISMOA

# Beste Iruñako Antonio Etxeberriak irabazi zuen Beran Lizuniagako XXV. Igoera

Peio Garinek 1982an egindako markatik 12 segundura gelditu zen

A.A.

Beste Iruña taldeko Antonio Etxeberria korrikariak irabazi urriaren 22an Beran XXV. Lizuniagako Igoera. Etxeberriak aspaldiko urte-etako markarik onena egin zuen (16'25"), baina 1982an Peio Garinek egin zuen errekorretik 12 segundura gelditu zen. Etxeberriak aipatu zuenez, markarik onena 16 minutu eta 31 segundukoa zela uste zuen, horrela agertu baitzen komunikabideetan eta ez 16 minutu eta 13 segundukoa. Bere denbora zerbait hobe zezakeela ere uste zuen Beste Iruñako korrikariak. Irabazlearen ondotik, Rafa Maribalar le-sakarra sailkatu zen (17'27") eta Imanol Cruz donostiarrak osatu zuen podiuma (17'37"). Se-



Podiumean Antonio Etxeberria irabazlea eta eskuinean Joxelu Loiarte eta Fernando Etxegarai beratarrak.

gundu bakarrera, lau-garren postuan sartu zen Fernando Etxegarai beratarra. Bosgarren

postua Angel Mari Garrate iruritararentzat izan zen, Trintxerpeko Xabier Auzmendi seiga-

rren izan zen. Loro Pikabea beratarra zazpigarren, Berako Jose Luis Loiarte zortzigarren

eta Baionako Daniel Me-hats bederatzigarren.

Beteranoen artean, Iruñeko Iñaki Baquedano izan zen azkarrena (18'45"). Bigarren postua Batixta Telletxea beratarrek eskuratu zuen (20'19") eta hirugarrena Iruñeko Peio Ezpeletak (21'04").

Emakumeen artean bizkorrena Tarrasako Cristina Arbues izan zen (21'31"). Marisol Martinez irundarra bigarren izan zen (23'47") eta Burlatako Rosa Orofinok osatu zuen podiuma (24'08").

Gazte mailan parte-hartzaile bakarra izan zen, Jonathan Andelurria irundarra. 29 minutu eta 13 segundu behar izan zituen 4,9 kilometroko ibilbidea osatzeko.

## ESKUBALOIA

## Denboraldiko lehen partida derbian irabazi du Magna-BKTK

24-22 irabazi zioten baztandarrek Atarrabiako Beti-Onak taldeari

Magna-BKT eskubaloi taldeak denboraldiko lehen garaipena eskuratu zuen urriaren 22an Elizondon. Partida berezia aukeratu zuen horretarako, Lehen Malla Nazionaleko nafar derbian nagusitu baitzen. 24-22 irabazi zioten baztandarrek Atarrabiako Beti Onak taldeari. Garaipenaren bidea topatuta, hortik segitzea da orai helburua.



Lehendabiziko bi partidak galdu ondotik, Beti Onak taldearen kontrako derbia irabazi zuen Elizondon Magna-BKT eskubaloi taldeak.

## HERRI KIROLA

# Donato Larretxea gabe jokatu da Nafarroako aizkolari txapelketaren finala

Azaroaren 18an egingen da final nagusia Donezteben

A.A.

Gaur egungo txapel-dunik gabe, Donato Larretxearek gabe jokatu da Nafarroako aizkolari txapelketa nagusiaren finala. Gerrieta-ko arazoak denboraldiko unerik txarrean agertu zaizkio Arantzakoari eta ezin izanen du ez Euskal Herriko ezta Nafarroako finaletan ere parte hartu.

Nafarroako finala azaroaren 18an jokatu da Donezteben, 17:30etatik aitzinera, Floren Nazabal, Mikel Mindegia, Jose Juan Barberena, Antonio Senoslain eta Larretxearen ordezkioak, Juan Jose Lopezek lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko moztu behar-ko dituzte.



Donato Larretxeak ezin izanen dio iaz lortutako txapelari etsi.

Doneztebeko feria eguneko arratsaldean egingen den herri kirol saio nagusia izanen da,

baina ez bakarra. Euskal Herriko aizkolari gazteen txapelketa ere han erabakiko da; Berri-

zarko Julen Kafamares, Gipuzkoako Aratz eta Ugaitz Mugertza anaiak eta Aitzol Atubxa

bizkaitarra arituko dira. Bertze aldetik, Nafarroako bigarren mailako arpana txapelketa ere jokatu da. Hau idazterakoan, bi bikotek segurtatua dute partehartzea; Sunbillako Mikel Bertiz eta Arraiozko Xabier Urrutia, eta Garrantzako Fran Juanperez eta Angel Luis Mandazenek osatutakoak. Garrantzatik bertze bikoteren bat ere izanen da seguruena.

Azkenik, Nafarroako emakumeen arpana txapelketa ere jokatu da. Orkolengo Begoña Armentariz eta Bea Urriola; Arbizuko Maitane Txueka eta Susana Agerre eta Lezaungo Itziar Nuflez eta Elena Urabalen dira aritzekoak.

## Joxemari Olasagasti igeldoarra ustegabeko txapeldun izan zen Euskal Herrikoan

Nazabalek ez zuen egunik onena izan eta Larretxea ez zen aritu

Joxemari Olasagasti igeldoarrak aisa irabazi zuen urriaren 23an Durangon Euskal Herriko aizkolari Txapelketa. Aizkolari bakoitzak lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta lau oinbiko moztu behar izan zituen eta Olasagastik 43 minutu eta 54 segundutan akautu zituen lanak, azken 21 urteotako denborarik

kaxkarrena, hain zuzen, Euskal Herriko bosgarren txapela izan da Olasagastirentzat, 1996an Oionen, 1998an Tolosan, 1999an Altsasun eta 2001ean Getxon irabazitakoen ondoren. Bigarren postua faborito nagusiak, Floren Nazabalek eskuratu zuen (46'10"); hirugarren Joxe Migel Peñaganikano

izan zen (47'17"); laugarren Iñaki Azurmen- di (47'55"), bosgarren Joxe Juan Barberena (49'21") eta seigarren Larretxearen ordezkari- tu zen Fausto Mugertza (51'19"). Aunitzen ustez, Donato Larretxea finalean izan balitz, emozio gehiago izanen zen.

Txapeldun eta azpitxapeldunak, Olasa-

gastik eta Nazabalek, urriaren 30ean Donostian egin den Munduko txapelketan Euskal Herria ordezkatu dute. Australia, Zeelanda Berria eta AEBko aizkolariak ere aritu ziren.



# AGENDA

## egunez egun

### BESTAK

**AURTZ**  
Azaroaren 10etik 13ra San Marín bestak. Xehetasunak 16. orrian.

### ZINEMA

**LEITZA**  
Azaroaren 4 eta 6an Alexander Payne zuzendariaren «Entre copas» filma eskainiko da zinemari.  
Azaroaren 11 eta 13an «Código 46» filma eskainiko da zinemari.  
Ostiralean 22:30etan eta igandetan 19:30etan.

### JARDUNALDIAK

**BERTZ**  
Urriaren 29tik azaroaren 27ra Ehizri buruzko XIII. Jardunaldi Gastronomikoak: 12 jatebuketan menu bereziak eskainiko dira. Xehetasunak 8. orrian.

### TOPAKETAK

**DONEZTEBE**  
Azaroaren 5 eta 6an Interneteko «Micolist» Mikologia Foroaren bilkura eginen da. Xehetasunak 14. orrian.

### ATERALDIK

**BERTZ**  
Azaroaren 22an Bertiz Jaurren Natur Parketik Astizeko lezera eta Eltsoko Ezkuri erlezaintza museo-ertera ateraldia antolatuta da. Izen ematea azaroaren 13a baino lehen 948 502421 telefonora.

### IKASTAROK

**BERA**  
Azaroaren 8tik otsailaren 21era oroitzena lantzeko ikastaroa antolatuta du Gizarte Ongizate Batzordeak. Astearletan 17:00etatik 18:30etara.

## TELEBISTAKO TXOKOA



## ORTZIRALEAN TTIPI-TTAPA TELEBISTAN

# Sagardoa egiten Sarako Kaikuineko Mixelekin

Sagardoa egiteko sasoi bete betean garela, Ttiipi-Ttapako kamarak Sarako Lehenbizkai auzora joan ziren Kaikuineko Mixel Urbisondok sagardoa nola egiten duen jakiteko. Lehenago Lapurdiko eskualdean ere, sagardo aunitz egiten bazen, 1960ko hamarkadan Frantziako gobernuak diru laguntzak eman zituen sagarrondoak lurretik ateratzeko. Nekazaritza eta abeltzaintza bultzatu nahi zituen. Hori dela eta, dolareak pixkanaka pixkanaka desagertuz joan ziren. Hala ere Mixelek beti gogoa izan du bere baserrian tradizio horren berreskuratzeko. Duela urte batzuk lehen litroak egin zituen. Az-

ken urte hauetan mila litro inguru egin ditu eta berrikitzen bertze sagarrondo batzuk sartu ditu. Kaikunian ibili ginelarik, Mixelek azaldu zigun sagardo on baten egiteko etapa guztiak, biltzea, xehatzea, tinkatzea eta bertzeak bertze. Truko batzuk ere aipatu zizkigun. Horiek ezagutu nahi badituzu ez galdu ortziraletan arratsaldeko erreportaia Ttiipi-Ttapa Telebistan.

### FERIA GARAIA

Lurraren Eguna, Elizondoko Feriak, Arantzako Baserriaren Eguna pasatu dira eta begi bistan ditugu Doneztebe eta Lesakako feriak. Denak Ttiipi-Ttapan ikusgai.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA  
(Urriaren 14tik 21era bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



Zerrikumea  
(19 kilo): 28,00 € (+3,00)

Zerri gizona  
0,948 € kiloak. (=)

Zerramak:  
0,410 € Kg/bizirik. (=)

### BEHIKIA



Aretze gizenak:  
Idixkoak: €/kg. Kanal  
Extra 3,45 (=)

1.koa 3,22 (=)  
2.koa 3,09 (=)  
Urruxak: €/kg. Kanal  
Extra 3,55 (=)  
1.koa 3,34 (=)  
2.koa 3,16 (=)

Oharra: Prezioak 180-220  
Kg. kanakan pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak  
(15 egun ingurukoak):  
Aretze mestizoak:  
urruxak 200,00 (=)  
idixkoak 220,00 (=)

Aretze nabarrak:  
urruxak 165,00 (=)  
idixkoak 190,00 (=)  
Zaldikoak: €/k  
Sortuberriak: 2,95/3,01  
Zaldi-behorak: 1,57/1,87  
Bildotsak: €/k  
6-8 kilokoak: 8,70/8,90  
8-10 kilokoak: 7,00/7,60

## DISKAK



«40 urtez  
ikasten egonak»  
BENITO LERTXUNDI  
ELKAR, 2005

Berri Txarrak taldearen disko berria –bosgarrena jada–, Karlos Osinagak (Lisabó) grabatua eta Ed Rose (The Get Up Kids, Kurt Cobain...) ekoizleak nahastua da, AEB-ko Kansasen. Jaio. Musika. Hil diskoak hirukoa estatuko rockaren lehendabiziko lerroan kokatzen ditu, hamaika urtetan euren musikarekin etengabeko garapena burutu ondoren. Libre diskoak izandako arrakastaren ondorekin Berri Txarrak ez da lo geratu eta berriz ere soinu tankera berriekin jolasean aritu da, euren berezko estiloari nabardura bereziak gehituz. Hiruko nafarrak berritsi egin du talde ezberdina dela, ibilbide luzekoa, arima independenteduna, adimen eta bihotz irekikoa. Rock garalidetik abiatuta, metala, hardcorea, punka edota pop musikatik edaten dute berezko duten estiloa zabaltzeko.

# AGENDA egunez egun

## JAKIN BEHARREKOAK

### «Nere seme-alabek ez dute ikasten segi nahi»

Ikasketak utzi eta lanean hasteak dituen alde onak eta txarrak berekin aztertu behar dira

Nerabezaroa haurtzaroaren eta heldutasunaren arteko transizio garaia da. Berez, ez du zaila izan beharrik, baina batzuetan arazo txiki batzuk sortzen dira. Horieta-ko bat, zuen seme-alabek ez dute ikasten segitu nahi erratea izaten ahal da. Guraso aunitzentzat hau desilusio handia izaten da, beraien izan ez duten aukera seme-alabek aprobetxatzea espero baitute. Horregatik, zer egiten ahal dugu seme-alabek ikasketak utzi eta lanean hasi nahi dutela eraten digutenean?

• Lehenik bere arrazoiak aditu behar ditugu. Akaso ez du ikasten segitu nahi be-

rak ahaleginak egin arren emaitza onik lortzen ez duela ikusita frustrazioa sentitzen duelako, edo, izandaitenke motibazio falta garai batean murgildua egotea, edo bere burua gai ez ikustea... Arrazoiak motibu zehatz eta puntuala bada, horren inguruan lan egiten ahal da eta garai hori gainditzen lagundu.

- Ikasteari uzteak eta lanean hasteak dituen alde onak eta txarrak berekin batera baloratu.
- Ez duzu seme-alaba errudun sentiarazi behar ikasten segitu nahi ez duelako, eta ez duzu horregatik gutxiago baloratu behar.
- Nahi duena independientzia ekonomi-



ARRAZOIA Ikasketak uzteko arrazoiak motibu zehatza baldin bada, horren inguruan lan egiten ahal da.

koa baldin bada, derrigorrezko ikasketak bukatzen dituen aldi berean lanean hastea proposatu. Behar bada, lanaren errealitatearekin harreman izatean gauzak modu errealistago batean ikusiko ditu.

- Dagoeneko derrigorrezko ikasketak bukatu baldin baditu, lanbide modulu bat egitea proposatu, lan munduan sartu aitzinetik formakuntza ona izatearen garrantziaz

ohartzeko (kompetentzia gero eta handiagoa da eta langabetuen artean ehuneko-rik handiena ikasketarik gabeko edo oinarrizko ikasketadun dira).

- Berak hartzen duen erabakian lagundu, baina beti ere gogoratu seme-alabari laguntzeak ez duela erran nahi berekin gauza guzietan ados zaudenik.

Rakel AMIGO

## ERAKUSKETAK

### BERA

Azaroaren 7tik 20ra «Hitzak egin gaitu ez» bertsoari buruzko erakusketa ikusgai Kultur Etxean, egunero 18:00etatik 20:00etara. Ekitaldi osagarriak ere egiten dira: Azaroaren 7an 19:00etan erakusketa irekitzeko ekitaldia. 19:30etan Andoni Egafaren hitzaldia: «Ahoz kotasunaz». Azaroaren 20an 17:30etan Bortzirietako bertso eskolaren emanaldia: «Gu ere bertsoari» bertso-antzerkia.

### LESKA

Urriaren 17tik azaroaren 8ra «Euskal artzainak Rio de la Platan» argazki erakusketa ikusgai Beti Gazte elkartearen egoitzan, asteleheneetik larunbatera, 18:30etatik 20:30etara.

## ANTZERKIAK

### BERA


Azaroaren 4an «Ugaltzen balen antsiak» antzezlan eskainiko du Teresa Lopez de Muniainek Eguzki ostatuan 22:00etan. Azaroaren 11n «Nora hoa, neska?» antzezlan eskainiko du Txirene taldeak Zizka ostatuan 22:00etan. Azaroaren 18an «Ke takoiak» antzezlan eskainiko du Bele-bizi taldeak Lixola ostatuan 22:00etan. Ekitaldi guziki Berako VII. Kafe-antzerki zikloaren barruan.

## KONTZERTUAK

### ELIZOHKO

Azaroaren 5ean Mexikoko «Jaguare» taldeak kontzertua eskainiko du Lur diskotokan, 1:00etan. Sarrera: 12 euro.

## LIBURUAK



Bekatuak

Ana URKIZA

ELKAR, 2005

Ana Urkizak hainbat "bekatu" mota bildu ditu liburu honetan: harrokeria, mendekua, desleialtasuna, inbidia, faltsukeria, lapurreta, traizioa... Asmoaz da katalogo bat egitea, ezta geure bizimodua antolatzeke aholkuak ematea ere, ipuinak asmatu baititu egileak gai horien inguruan. Ana Urkiza ondarmutarrak pare bat poema-liburu eta haurrentzako hainbat kontakizun kaleratu ondoren, helduentzako bigarren ipuin-bildumarekin dator.

Desira izoztuak kaleratu zuen 2000n, eta Bekatuak besapean hartuta dator orain. "Ongiaren eta gaizkiaren marra finaren harian sentitzen dugu geure burua" dio egileak. "Ongi al dago hau ala bestea egitea? Hau ala bestea esatea? Hau ala bestea sentitzea? Legea edo Justizia ez dira egunean hartzen ditugun erabaki guzietan sartzen. Aske gara eguneroko erabaki txikiok hartzeke. Baina zer gertatzen da gure kontzientziarekin?"





Benta Miguel jatekian. Bazarriak. ☎ 948 631394.

**Peoiak:** igeltseroak, elektrozistak, iturginak eraikin publikoen mantenimendurako. Astelehenerdik ortziratera, Betatik 15etara. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Sukalde laguntzaileak,** sukaldariak, kamareroak. Lanpostu finkoak. Ordutegia: Betatik 15etara. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Hautzaindegia publikoak.** Bete behar dira: haur zaindariak, hezitzaileak. Ordutegi intentsiboa. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Correos.** Bete behar dira: banaketarako, sailkatzeko eta bezeroari ameterako langileak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Laborategia.** Ospital eta Nafarroako Gobernurako lanpostu libreak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Gidariak.** Lanpostu libreak: Iruña, udalbetetan. Astean 35 ordu. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Erresidentzietan lan egin.** Hirugarren adineko zentroak, ospitale publikoetan zeltadore, erizain laguntzaile, fisioterapeuta, pintze lanetan. Lanpostu libreak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Garbitzaileak.** Lanpostu finkoak eraikin publikoetan, ikastetxetan, ospitaleetan. Astelehenerdik ortziratera. Betatik 15etara. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Zaindariak.** Lanpostu libreak: Museo, liburutegi, eraikin publikoetan. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Elbarri fisikoak.** Lanpostu libreak: atezain, harreragile, lorezainak erakunde publikoetan. ☎ 948 199596.

## MOTORRA

### 501 Salerosketak

Fiat Tempra autoa salgai, SS-AU matrikuladuna. 160.000 km. Egoera onean.

## TALLERES SANTESTEBAN

☎ 948 430282 • DONEZTEBE

### KOTXE IA BERRIEN SALMENTA (6-10 HILABETEKOAK)

CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE, SEDAN, MEGANE GRAND TOUR

### ERA GUZTIETAKO ERREMOLKEAK

BHIZARAKO, MOTOAK, ZALDIAK, ETA QUAD-AK GARRAIATZEKO... ZURE NEURRIRA. EGINDAKO ERREMOLKEAK

☎ 685 794682.

**Honda CPR 900 RR** motoa salgai, 1995. urtekoa, 56.000 km. ITVa pasatu berria. 4.000 euro. ☎ 635 755162 (Jon).

**Renault Clio 1.2** autoa salgai, NA-AP matrikuladuna. Egoera onean. ☎ 948 634065.

**Iveco Turbodayly** 49.10 lur-

## SAMPI ARAGON ZOANSA

Seat Iruia SDI, Seat Iruia TDI, Seat Leon TDI, Peugeot 206, Opel Corsa, Mitsubishi Motors 5 atz, VW Golf IV, Citroen Xsara Picasso, Citroen ZX TDI, Peugeot 306 TD, Ford Fiesta, Hyundai Getz

## MENDAUR MOTOR

☎ 948 430333 • DONEZTEBE

**Bigarren eskuko kotxeak:** Mercedes DD 3.0 atz, Volvo 3.0 atz TDI, Opel Astra, Terrano II, Galper 1.0 atz, Grand Volvo 5 atz, Renault Kangoo, Citroen Xsara HDI eta TDI, Opel Corsa eta Land Rover Freelander 1 atz. SUZKURAK ETA WDARAK ALKEMAN

goneta salgai. Ongi erabilia. ☎ 678 860244-647 773124 (Iñurabarbetan).

**Volkswagen Transporter** TDI autoa salgai, haize egokituarekin, 6 plaza. Baditu extrak. ☎ 610 221528.

**John Deere traktorea** salgai, 80 zaldikoa eta kabina-ekin. ☎ 620 076102.

## ANIMALIAK

### 602 Salerosketak

**20 ardi eta ahare bat** salgai. ☎ 948 634170.

**6 urteko asto beltza** salgai. Oso txinboa. Merke. ☎ 636 149403 (gauezt).

**ARANTZA.** Hiru urteko ahare mutur urdina salgai. ☎ 948 634008.

## DENETARIK

### 701 Galdu-aurkituak

**LESACA.** Antoiu karrikan monedero bat aurkitu da. ☎ 948 637136.

## DENETARIK

### 702 Salerosketak

**Labadora industrial** salgai, Corberó markakoa. ☎ 948 630239.

**Bigarren eskuko akordeoi** bikiki bat erosiko nuke. ☎ 675

716009.

**Haurrendako sileta** salgai, Bebe Confort markakoa. Berrria eta konpletua dago. ☎ 659 914165 (13:00etatik 15:00etara eta 19:00etatik aitzinera).

**Gasolero galdara eta depositoa** salgai Eratzun. Gubi erabilak eta egoera onean, 1.000 eurotan. ☎ 943 361328.

**220 litroko esne tankea** salgai. ☎ 948 513042 edo 628 535946.

**Solarium-a** salgai, 4 urtekoa, Enco-Sevilla modeloa. Bertikala, hagitz egoera onean. Nahi duenak ikus dezala. Lanpara berriak ditu. ☎ 661 845045.



## BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

### Jakinarazten dut:

2005eko bigarren urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

#### Ordaintzeko era:

##### Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

##### Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

#### Ordaintzeko epea:

- 2005eko azaroren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2005eko abenduaren 31ra arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20 errekariguarekin kobratuko da.

*Bortzirieta, 2005eko urriaren 1ean.*

Presidentea, Miguel M<sup>o</sup> IRIGOIEN



Zugan mundio  
Bako  
**GOIENETXER**  
azaroaren 13an  
urte bat beteko  
du. Zorionak  
aitati, amati  
eta familia  
guztaren  
paretik.



**OIER GOIOETXEA**  
leitzorarik  
urriaren 25ean  
5 urte bete ditu  
Urte askoz  
eteko guztien  
paretik.



**JOANA GOIOETXEA MITXELENA**  
beralarik  
2 urte bete  
ditu urriaren  
25ean. Zorionak  
lagunen paretik.



**JOSE MARI LASAGA «MATXAR»**  
beralarik  
63 urte bete ditu  
azaroaren  
1ean. Zorionak  
lagunen paretik.  
Ondo gehiago ekar!!



**JAVIER TELLETXEA**  
beralarik  
46 urte bete  
ditu azaroaren  
1ean. Auniz  
urtez lagunen  
paretik.



**ONINTZA ZAPARRIN ARJUN**  
beralarik  
5 urte bete ditu  
urriaren 23an.  
Auniz urtez  
presioa!!



**OHANA LEITZA ALTZUARI**  
beralarik  
7 urte bete ditu  
urriaren 31n. Zorionak  
eta muxu bat aita,  
ama eta Arraioz eta  
Lesakako familien  
paretik.



**MAITE LEGASA TABERNA**  
igantziarik  
9 urte beteiko ditu  
azaroaren 10ean.  
Segi beti bezain  
maja eta alaiak.  
Zorionak igantzi  
eta Lesakako familien  
paretik.



**MAITE LEGASA TABERNA**  
igantziarik  
9 urte beteiko ditu  
azaroaren 10ean. Muxu  
haundi bat zure  
lehengusu Andoren  
paretik. Zorionak!!



**Inigo Madoz BAKERO ARAKAMAK**  
urriaren  
27an urte bat  
du. Bere ahizpa  
Nerea eta aita-  
beto eta amabeto  
paretik muxu  
haundi bat.

**NORBAIT  
ZORIONTEKO,  
BIDALI BERE  
ARGAZKIA,  
TESTUA ETA  
0,28 EUROKO  
13 SEILO  
TTIPI-TTAPAKO  
HELBIDERA:**



**ttipi-ttapa**  
Andutzeta, 12  
31760 ETXALAR

Urtebetetzeko argazkiak

Internet-en ere

[www.ttipi.info](http://www.ttipi.info)

# Bera

## Kultur Etxea

### Erakusketa

azaroaren 7tik - 20ra

ordutegia

Egunero: 18.00 - 20.00

**Ekitaldi osagarriak Kultur Etxean:**

Azaroaren 7an, astelehena

19.00etan erakusketa ireki-betiko ekitaldi

19.30etan Andoni Eguaren hitaldi "Wakatsaurak"

Azaroaren 20an, igandea

17.30etan Bera Kultur Etxean erakusketa "Guzen berak" betiko-erakusketa



Berako

Andoni Eguaren

laguntza

Berako  
Euskara  
Batzordea



# EHIZA

## XIII. JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK

Urriaren 29tik  
azaroaren 27ra

Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietako 12 jatetxek eskainirik, betiko menuz gain uso, basurde, orein, erbi edo oilagorrez osatutako menuak dastatuko dituzu, betiko moduan edo era berrietan eginak



Margari Aizpuru

**16,50 - 30 €**  
arteko menuak  
(edaria eta  
BEZ kanpo)

### ANTOLATZAILEA



### LAGUNTZAILEAK



### JATETXEAK

#### ALMANDOZ

Beola. .... 948 58 50 02 - 948 58 53 00

#### ARANTZA

Aterpe. .... 948 63 41 79

Burlada. .... 948 63 40 27

#### BERA

Zalain. .... 948 63 09 67 - 948 63 11 06

#### DONAMARIA

Donamariko Benta ..... 948 45 07 08

#### DONEZTEBE

Amezti. .... 948 45 19 02

#### ELGORRIAGA

Hilarion. .... 948 45 00 03

#### ELIZONDO

Eskisaroi. .... 948 58 00 13

#### IGANTZI

Igantzi. .... 948 63 75 02

La Villa. .... 948 63 72 90

#### LESAKA

Kasino. .... 948 63 72 87

Koxkonta. .... 948 62 75 19

**ZOKKETA:** Partehartzaileen artean zozketatzeko  
5 bikoterendako bazkariak

- SUKALDEAK
- LOGELAK
- MAHAI ETA AULKIAK
- KOLTXOIAK
- LORATEGIKO MOBLEAK
- ANTIGUALEKO MOBLEAK
- KONPLEMENTUAK

- Urtebeteko epea zure erosketak ordaintzeko, kargunik gabe.
- 2500 m<sup>2</sup> ko erakusketa.
- Aparkaleku pribatua eta haurrentzako toki libreak.



N-1 errep. • 472 km  
Irati eta Carretose  
(Iberrin Pirra) tarteko bidean  
20100 LEZO (Gipuzkoa)  
Tel. 943 26 11 95 • Fax 943 26 11 96  
e-mail: indar-arretvea@terra.es  
www.mobel-kasa.com



## MOBEL - KASA

ALTZARIAK

betiko kalitatea  
gaur egungo diseinuekin



ENBASEEK BEHAR BEZALA BEREIZTEA ESKATZEN DIZUTE

# BEREIZTU



## BAZTAN, BORTZIRIAK ETA MALERREKAN 164.000 Kg. ENBASE BERRESKURATU DITUGU

Kontuan hartu birziklatze sistema etxean hasten dela. Bereiztu enbaseak eta sartu kolore horiko zaborrontzietan. Horrela egiten badugu ez dira zabortegietara eramanen eta ingurumena zainduko dugu. Guztion artean, oraindik gehiago egin dezakegu.



SEGI DEZAGUN ENBASEAK BEREIZTEN GURE HERRIAK ZAINTZEKO



BIRZIKLATZEKO BEREIZTU  
[www.ecoembes.com](http://www.ecoembes.com)

